

egon line

Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko
gida pedagogikoa:
erabilera arduratsua, prebentziozkoa eta hezigarria



egon line

Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko
gida pedagogikoa:
erabilera arduratsua, prebentziozkoa eta hezigarria



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2015eko otsaila

Ale-kopurua:

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet: www.euskadi.net

Autorea: suspergintza elkarte

Itzultzailea: Bakun

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:

L.G.:

// AURKIBIDEA

// TESTUINGURUAN KOKATZEA	7
// KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDERDI PEDAGOGIKOAK	8
// SARRERA	9
// UNITATE DIDAKTIKOEN BANAKETA	11
// DBH1eko JARDUERAK	14
// DBH2ko JARDUERAK	56
// IRAKASLEENTZAKO MATERIALA	90
// BIBLIOGRAFIA	109

// TESTUINGURUAN KOKATZEA

Gaur egun, iragate-garai bat bizi dugu gizartean nagusi diren balioei dagokienez, planteamenduak berritzen ari baitira. Bide horretan, IKTek lehentasunezko tokia hartu dute, zuzenean eragiten baitiete gazteei, baita sozializatzeko garaian ere, eta euren bizitzetan nagusitu baitira; hala, bestearekiko eragin-trukea ezartzeko modua nahiz inguruan duten guztia hautemateko modua zehazten dute.

Gaur egun, euskarri teknologiko ugari funtsezko bihurtu dira nerabeentzat, baina bada besteen gaintik nabarmentzen den tresna bat, **Internet**; izan ere, euskarri informatikoaren bidez nahiz sakelako telefonoen bidez, gero eta toki nagusiagoa hartzen ari da gure gizartean.

Internetek ezin konta ahala aukera ditu, baina arriskuak ere baditu, komunikatzeko eta informatzeko tresna bikaina izan badaiteke ere, erabilera okerra eginez gero, indarkeriazko agerpenak bultzatzen baititza.

Beraz, beharrezkoa da hezkuntza-zentroek nahiz gurasoek arlo horretan **prestakuntza eta informazio** handiagoa eskaintzea, ez soilik ikuspegi teknologian, baita Interneten erabiltzaileen artean eragin-truke egokia berma dezaketen hezkuntza-esparruetan ere. Hala, bada, sareak makina bat aukera eskaintzen ditu, eta beharrezkoa da **garapen etiko eta morala eskuratzea bermatuko duten zenbait ikaskuntza barneratzea, aukera horiek modu egokian erabiltzeko.**

INDARKERIA MODU BERRIAK

Indarkeria betidanik existitu izan da, baina berorren adierazpenak nahiz berori gauzatzeko bideak aldatu eta bilakatu egin dira denborak aurrera egin ahala. Gaur egun, IKTekin batera, indarkeria modu berriak agertu dira; besteak beste, grooming-a: adingabeen aurkako sexu-jazarpena sarean; sexting-a: sexu-edukia duten irudiak (argazkiak edo bideoak) bidaltzea sakelako telefonoaren bidez; haur-pornografia, delitu informatikoak, iruzurra, sektak, **ziberbullying-a** (parekoen arteko jazarpena sarean).

Gida pedagogiko honetan planteatzen diren jardueren bitartez, beraz, sareak dituen arriskuak landu nahi dira, eta teknologia berrien aurrean beroriek modu egokian erabiltzen direla bermatzeko beharrezkoa den sentsibilizazioa eta heziketa ere landu nahi dira, hala, prebentzioaren bidez eta gure ohiturak zuzenduz nahiz gurasoek eta irakasleek gai honetan betetzen duten toki garrantzitsua aztertuz erabilera segurua sustatzeko. Izan ere, alderdi guztien inplikazioa beharrezkoa da teknologia berrien erabilera arduratsuen inguruko hezkuntza-bermea lortu nahi badugu.

Gida honen helburu nagusia, azken batean, teknologia berrien bidez gerta daitekeen jazarpena lantzea eta arrisku horri aurrea hartzea da. Teknologia berriak arduraz erabiltzeko hezteak, ibilbide pedagogikoa ahalbidetuz, ikasleek beren nabigatzeko-ohiturak azter ditzaten eta ekintza jakin batzuek norberari eta hirugarrenei ekar diezazkioketen arriskuak eta arazoak hauteman ditzaten. Aurreikusteko bideak eta modu seguruan nabigatzeko jarraibideak eskaini nahi dira.

Ikaskuntza eta garapena errazteko nahiz parekoekin eta gizartearekin harremanetan jartzeko baliabide gisa ulertu behar dituzte ikasleek teknologia berriak. Segurtasunez igarotzeko espazio aberasgarria izan behar du, eta hezitzaileok ikasleak ahalduntzeko eta igarotze hori bermatzeko tresnak eskaintzeko ardura dugu, edo izan behar dugu.

// KONTUAN IZAN BEHARREKO ALDERDI PEDAGOGIKOAK

- Teknologia berrien erabileraren azterketa egin behar da, nabigatzeko ohitura onak eta txarrak hautematen lagun diezagun.
- Web 2.0 unibertsoaren dimentsioa eta horrek eskaintzen dituen aukerak aztertu behar dira.
- Sareko indarkeria motak ezagutu eta aztertu behar dira. Ikuspegia zabaldua, egoera ezagutu behar da. Lagungarri izango da hori ziberbullying-a testuinguru egokian kokatzeko.
- Sarean indarkeria jasaten duten biktimekiko elkartasun-konpromisoa garatu behar da, eta baita teknologia berriak arduraz erabiltzeko konpromiso pertsonala ere.
- Zibereskubideak: haurren eta nerabeen e-eskubideak IKTen testuinguru berrian. Datuen babesa, gurasoen eta hezitzaileen zeregina. Sareko indarkeriari aurrea hartzeko eta horren aurrean jokatzeko komunitatean ditugun baliabideak ezagutu behar ditugu.
- IKTen erabilera egokia sustatu behar da, ikus-entzunezko lanak eginez, IKTen erabilera egokia bermatzeko.
- Sentimenduak eta zirrarak bideratu behar dira. Sentimenduak eta zirrarak adierazten lagundu behar diegu.
- Sarean arazo bat duten pertsonekin enpatiarako eta asertibotasunerako abileziak landu behar dira. Estereotipoak eta aurreiritziak gainditu behar ditugu.

// SARRERA

Programa honen helburu nagusia gazteei Web 2.0 guneak eskaintzen digun dimentsioaz (ikasleak sentibilizatzea) eta aukerez jabetzen laguntzea da, eta berori arduraz erabiltzen ez badugu aurki ditzakegun arriskuak ikusaraztea. Horretarako, ikasleek ibilbide pedagogikoa egingo dute, hiru gai nagusi hauen bitartez:

GAIRA HURBILTZEA:

Atal honetako dinamiken helburua ikasleek sarearekin duten harremana eta horri buruz duten pertzepzioa aztertzea izango da, bai eta sareak dimentsio eraikitzailetik eskaintzen dituen aukerak aztertzea ere. Halaber, modu desegokian erabiliz gero sarean aurki ditzakegun arriskuei buruz kontzientzia hartzeko aukera eskainiko die ikasleei dinamika multzo honek.

OHITURAK ETA ARRISKUAK AZTERTZEA:

Atal honetako dinamiketan, ikasleek nabigatzeko dituzten ohiturak aztertuko dituzte, eta sareak eskaintzen dituen tresnen erabilera arduragabea egiteak sor ditzakeen arazoengatik gogoeta egiteko ariketak egingo dituzte, arazo horiek nahiz horiei aurre egiteko moduak eta konponbideak hautemateko.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONPROMISOA:

Atal honetako dinamiken helburua ikasleei teknologia berrien erabilera desegokitik ondorioztatutako arazo batek biktimarengan izan dezakeen dimentsioa ulertaraztea da, eta enpatiazko ariketak erabiliko dira horretarako. Halaber, ikasleak sentibilizatu ondoren, dinamika multzo honen helburua ikasleek konpromiso-ariketa bat egitea da, eta teknologia berriak modu arduratsuan erabiltzeko konpromisoa hartzea.

Dinamikek, beraz, gazteak sentibilizatzeko aukera emango dute, sareko harremanak erabilera arduratsuan oinarri ditzaten eta harreman horiek eraikitzerakoan arduraz joka dezaten.

// UNITATE DIDAKTIKOEN BANAKETA

JARDUEREN LEHENENGO MULTZOA

GAIRA HURBILTZEA	
JARDUERAK	HELBURUAK
Nola hautematen dugu sarea?	
DBH 1	
egONLINE bideoa	Programa aurkeztea.
	Gaia ezagutzen hastea.
	Ikasleek teknologia berrien eta sare sozialen munduari buruz duten ikuspegia aztertzea.
Gorputz-atalak	Irudiei ematen diegun pisua eta testuinguru birtualean duten garrantzia balioestea.
	Sarean gure burua arriskuan nola jartzen dugun balioestea.
	Taldea lasaitzea.
DBH 2	
Video egON LINE	Programa aurkeztea.
	Gaia ezagutzen hastea.
	Ikasleek teknologia berrien eta sare sozialen munduari buruz duten ikuspegia aztertzea.
Corcho virtual	Gure datuak nola zabaltzen ditugun balioestea.
	Gure barneko kontuak zein espazio eta forotan partekatzen ditugun balioestea.
	Sarean gure burua arriskuan jartzeak dituen ondorioei buruz gogoeta egitea.
Zer gertatzen da sarean?	
DBH 1	
Orria pasatzen	Sareak eskaintzen dizkigun aukera guztiak ikusaraztea.
	Sareko alderdi garrantzitsuenak adostea.
	Sarea aukerak eskaintzen dizkigun gunea dela ikusaraztea.
Hau indarkeria da?	Indarkeriaren kontzeptua aztertzea.
	Indarkeria diogunean zer esan nahi dugun ulertzea, eta indarkeria motak bereiztea, sarean aurki dezakeguna ere testuingurura ekarriz.
	Sarean gerta daitezkeen indarkeriazko egoeren inguruan gogoeta egitea.
DBH 2	
Frankenstein birtuala	Sareak eskaintzen dizkigun tresnak aztertzea.
	Sareak eskaintzen dizkigun tresnen alderdi garrantzitsuenak identifikatzea.
	Sarea eraikitzeko eta aukerak aurkitzeko gune gisa identifikatzea.
Simulatutako elkarrizketa	Teknologia berriak erabiltzen ditugunean egiten ditugun ekintzak aztertzea.
	Teknologia berriak erabiltzean arriskutsuak edo indarkeriazkoak izan daitezkeen portaerak identifikatzea.

// UNITATE DIDAKTIKOEN BANAKETA

JARDUEREN BIGARREN MULTZOA

OHITUREN ETA ARRISKUEN AZTERKETA	
JARDUERAK	HELBURUAK
Zer egiten dugu sarean?	
DBH 1	
Inkesta	Zer tresna eta zer helbururekin erabiltzen ditugun aztertzea.
	Sarean egiten ditugun ekintzek guretzat eta besteentzat dituzten ondorioak aztertzea.
Bi mundu	Sarearen barnean eta saretik kanpo ditugun jarrera eta portaera desberdinak aztertzea.
	Sarearen barnean eta kanpoan barneratuta ditugun kode moral desberdinak aztertzea.
DBH 2	
Zatar-paperezko petoa	Sarean zenbat informazio eta zer motatakoa jartzen dugun aztertzea.
	Sare sozial berri batera nola hurbiltzen garen aztertzea.
	Segurtasun-aukerak konfiguratzeko beharri buruz gogoeta egitea.
Giza Whatsapp-a	Whatsapp-a erabiltzen dugunean egiten ditugun ekintzak eta saretik kanpo egiten ditugunak konparatzea eta aztertzea.
	Whatsapp barnean eta kanpoan komunikatzeko gure moduan barneratutako kode moralak aztertzea.
Non daude arriskuak?	
DBH 1	
Albisteen bila	Sarearen erabilerarekin lotutako prebentzio-neurriak eta aholkuak ezagutzea.
	Zibereskubideak ezagutzea.
	Gure gizartean, sarearen bitartez gertatzen diren gehiegikeria- eta jazarpen-egoerak aztertzea.
DBH 2	
Albisteak sortzen	Teknologia berriekin lotutako inguru batean sortzen diren arazoak ezagutzea.
	Sarea modu desegokian erabiltzen dela adierazten duten adibideak partekatzea.
	Gure gizartean, sarearen bitartez gertatzen diren gehiegikeria- eta jazarpen-egoerak aztertzea.

// UNITATE DIDAKTIKOEN BANAKETA

JARDUEREN HIRUGARREN MULTZOA

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONPROMISOA	
JARDUERAK	HELBURUAK
Zer egin behar dugu?	
DBH 1/DBH 2	
Non daude arriskuak?	Sareko arriskuak aztertzea.
	Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
	Sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.
Zirkulua	Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
	Sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.
	Enpatia lantzea sareko egoera desegokien biktimen aurrean, rol-dinamika erabiliz horretarako.
DBH 1	
Zergatik niri?	Sarean jazarpena jasateak dakarrenari buruz kontzientzia hartzea.
	Sarearen bidez tratu txarrak eta jazarpena jasateak sortzen dituen sentimenduak ezagutzea.
	Egoera horiek biktimarengan sortzen dituzten kalteei buruz ikasleak kontzientziatzea.
Role Playing	Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
	Sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.
	Enpatia lantzea sareko egoera desegokien biktimen aurrean, rol-dinamika erabiliz horretarako
Zer konpromiso hartzen dugu?	
DBH 1/ DBH 2	
Ikus-entzunezkoa	Programan eskuratutako ezagutzak ikus-entzunezko batean txertatzea.
	Teknologia berriak modu egokian erabiltzeko konpromisoa islatzea.
	Sorkuntza-lan baten bitartez parekoen artean teknologia berrien erabilera arduratsua hedatzea.



JARDUERAK DBH I

// EGONLINE BIDEOAREN AURKEZPENA	15
// NOR DA NOR?	17
// ORRIA PASATZEN	19
// HAU INDARKERIA DA?	21
// ZER EGITEN DUGU SAREAN?	25
// BI MUNDU	29
// ALBISTEEN BILA	31
// NON DAUDE ARRISKUAK?	39
// ZIRKULUA	44
// ZERGATIK NIRI?	47
// KONPROMISOA	51

egon line

// EGONLINE BIDEOAREN AURKEZPENA

DBH I

HELBURUAK

- Programa aurkeztea.
- Gaia ezagutzen hastea.
- Ikasleek teknologia berrien eta sare sozialen munduari buruz duten ikuspegia aztertzea.

DENBORA

- 30 minutu

MATERIALA

- egON LINE bideoa

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berriek eta sare sozialek gero eta presentzia handiagoa dute nerabeen artean. Beren komunikaziorako oinarrizko tresna bihurtu dira, eta egunaren zati handi batean erabiltzen dituzte. Smartphone-en sarrera zabaldu denetik, erabilera asko handitu da, eta egunean zehar konektatuta daude ia beti. Fitxategiak, argazkiak, testu-mezuak, ahots-mezuak eta horrelakoak bidaltzeko erabiltzen dituzte nerabeek Smartphoneak, eta askotariko programak eta sare sozialak baliatzen dituzte horretarako: Whatsapp, Telegram, Tuenti, Twitter, Snapchat...

Informazio-truke hori modu eraikitzaile batean egiten dute.

- Argazkiak bidali, edota egiteko dituzten zereginei buruzko informazioa bildu lankidetzan jarduteko.

Baina, beste askotan, arduragabekeriak ere erabiltzen dituzte:

- Egokiak ez diren argazkiak bidali, hirugarrenei buruzko informazioa bidali haien baimenik gabe, iraindu, mehatxu egin edo hirugarrenei jazarri...

JARDUERAREN GARAPENA

Programa aurkeztu ondoren, egON LINE bideoa ikusiko da. Eta, bideoko protagonistek beren egunerokoan teknologia berriak erabiltzen dituztenean, erabilera horrekin lotutako alderdiei erreparatzeko eskatuko diegu, ekintza positiboak eta ekintza arriskutsuei arreta jartzeko.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Bideoa ikusi ondoren, azterketa hau egingo da ikasleekin.

Bideoko protagonistek sare sozialez egiten duten erabilerarekin bat egiten duzue?

Ekintza arriskutsurik hauteman duzue?

Sare sozialak modu desegokian erabiliz gero arazorik izan dezakegu, zuen ustez?

Izan duzue inoiz arazorik horrelakoak erabiltzerakoan?

Badakizue ikastetxean edo zuen lagunartean gertatu den horrelakorik? Zer gertatu da?

Sare sozialen erabilera desegokiaren ondorioz sortu den arazo bat larria izan daiteke, zuen ustez?

ONDORIOAK

Teknologia berriak eta sare sozialak arduragabekeriak erabiltzeak askotariko arazoak sortu ditu nerabeen artean. Mundu birtualean, izugarri azkar zabaltzen dira gure ekintzak; ekintza horiek jende askorekin partekatzen dira, eta, horrez gain, sarean garatzen den ekintza bakoitzak ezabatu ezin den aztarna bat uzten du.


Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek beren egunez egunekoan teknologia berriekin duten harremana aztertzea eta, horrez gain, ezagutzen ez dituztelako edo arduragabekeriak jokatzeko dutelako beren burua arriskuan jartzea eragin dezaketen ekintzak hautematea.

Askotan, nerabe horiek ez dira konturatzen beren ekintzek zer-nolako arriskua dakarten. Beraz, funtsezkoa da gure nabigazio-ohiturak zorrotz aztertzea eta gure jokabidean zalantzarik izan daitezkeen guneak identifikatzen saiatzea.

eranskinak - egON LINE BIDEOA

DBH I

<http://www.youtube.com/watch?v=RZYUUYgkENQ>



// NOR DA NOR?

DBH I

HELBURUAK

- Taldea lasaitzea.
- Irudiei ematen diegun pisua eta testuinguru birtualean duten garrantzia balioestea.
- Sarean gure burua arriskuan nola jartzen dugun balioestea.

DENBORA

- 30 minutu

MATERIALA

- Argazki-kamera edo sakelako telefonoa.

TESTUINGURU TEORIKOA

Saio honen hasieran, giro egokia ezartzea lortu behar dugu. Kasu honetan, gainera, are garrantzitsuagoa da hori, konfiantzan eta komunikazioan oinarritutako giro horrek segurtasuna emango baitio taldeari bere pertzepzioak aztertzeko eta hainbat kontzepturi buruz gogoeta egiteko, eta erronka polita izan daiteke hori aurretiazko ideiei dagokienez.

Halaber, garrantzitsua izango da sarean gure irudia nola erakusten dugun aztertzen hastea: askotan tresnek berek eskatzen digute gure irudia erakusteko, edo horretarako bidea errazten dute; bestalde, irudia gurtzen den garai batean bizi gara, eta horrek baldintzatu egiten gaitu argazkiak kontsumitzeko eta partekatzeko orduan.

Irudi-truke horrek ez du zertan arriskutsua izan, testuinguru egokian eta arduraz egiten bada, baina, askotan, gure irudia partekatzeko premiak eta beharrak akatsak egitera eraman gaitzake, eta erabiltzaileak akats horien ondorio negatiboak jasan ditzake.

JARDUERAREN GARAPENA

Argazki-kamera digital batekin edo sakelako telefono batekin, parte-hartzaileek beren gorputzaren zati baten argazki bat aterako dute, eurek nahi duten zatiarena; gainerako ikasleek ez dute argazkia ikusi behar, eta ez dira aurpegiak agertu behar (belarria, eskua, oina, berezia iruditzen zaien beste atalen bat...).

Ondoren, argazki guztiak proiektatuko dira, eta taldeak ikaskideen izenekin lotu beharko ditu gorputz-atal horiek.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Jarduera amaitutakoan, ondoko azterketa hau egingo dugu ikasleekin batera:

Erraza izan al da zuen ikaskideen gorputz-atala ezagutzea?

Zerk erakarri du zure arreta?

Zer iritzi duzue Interneten zuen argazkiak jartzeari buruz?

Segurua dela uste duzue?

Whatsapp baduzue?

Zenbait Whatsapp-talde dituzue?

Twitter, Facebook, Tuenti eta Instagram erabiltzen dituzue?

Zer argazki mota partekatzen dituzue?

Arretaz jokutzen duzue datu pertsonalak emateko orduan?

Pentsatu duzu inoiz arriskutsua izan daitekeela?

Sarea modu desegokian erabili den kasuren bat ezagutzen duzu?

ONDORIOAK

Interneten partekatzen ditugun irudien erlatibizazioa eta hutsaltzea gertatu da, eta kaltegarria izan daiteke hori erabiltzaileentzat. Garrantzitsua da ikasleek egiaztatzea irudi baten bidez zeinen erraz identifika gaitzaketen, eta gogoeta egitea sarera igotzen ditugun argazki kopuruari eta argazki horien ezaugarriei buruz.

Ariketa honen bidez, ikasleek, alde batetik, argazki batean ageri diren pertsona guztiak identifikatzea zeinen erraza den egiaztatuko dute, eta, bestetik, argazki bat sarera igo aurretik berorren edukia balioestea zeinen garrantzitsua den.

// ORRIA PASATZEN

DBH I

HELBURUAK

- Sareak eskaintzen dizkigun aukera guztiak ikusaraztea.
- Sareko alderdi garrantzitsuenak adostea.
- Sarea aukerak eskaintzen dizkigun gunea dela ikusaraztea.

DENBORA

- 30 minutu.

MATERIALA

- Zatar-papera.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berrietatik ondorioztatutako arriskuen aurreko sentsibilizazioa eta prebentzioa garrantzitsua da, ikasleei beren buruak babesteko tresnak eta informazio nahikoa emateko, baina ez ditugu kriminalizatu behar; aitzitik, aukerak, laguntzak eta garapena eskuratzeko unibertso gisa aurkeztu behar ditugu.

Ikuspegi hori lagungarria izango da ikasleentzat nahiz horien hezkuntza-inguruarentzat, hezkuntza-prozesuaren barnean eta ikasgelan nahiz etxean normaltasunez txerta ditzaten. Hau da, ez ditugu etsaitzat hartu behar, baliabide lagungarritzat baizik.

Teknologia berrien abantailak eta aukerak arriskuen gainetik nabarmentzen baditugu, beroriek erabiltzeko orduan bide seguruagoa sustatuko eta erakutsiko dugu.

JARDUERAREN GARAPENA

Ikasleak bi taldetan banatuko ditugu. Lehenengo taldeari eskatuko diogu zatar-paperean sareak eskaintzen dizkigun aukera guztiak idazteko edo marrazteko, hau da, Web 2.0 guneari esker gara ditzakegun ekintza guztiak.

Adib.: beste herrialde batzuetako jendearekin hitz egin, fitxategiak trukatu, informazioa aurkitu, erosketak egin, jendea ezagutu...

Idea guztiak adierazi ondoren, bigarren taldeak lehenengoak zatar-paperean idatzitako edo marraztutako ekintza bakoitza ekintza horiek ahalbidetzen dituzten tresnekin identifikatu beharko du, zatar-paperean bertan tresna horiek marraztuz edo idatziz adieraziz.

Adib.: Skype, posta elektronikoa, sare sozialak, Wikipedia...

Hala, bada, ekintzen eta tresnen mapa bat osatuko dute; Web 2.0 guneak sortutako unibertsoaren neurria eta unibertso horrek eskaintzen dizkigun aukerak adieraziko ditu mapa horrek.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek tresnak aurkeztu ondoren, honako azterketa hau egingo dugu ikasleekin batera:

Adierazi dituzuen ekintzetatik zein egin zitekeen duela 25 urte?

Eta, egiteko aukera bazegoen, nola egiten zen?

Nola lagundu diote teknologia berriek gizarteari?

Eta nola laguntzen digute eskolan?

Eskolan txerta genitzakeen tresnak bururatzten zaizkizue?

Interneteko zer tresna erabil genitzake ikasgai bakoitzean?

ONDORIOAK

Ikasleek egunero erabiltzen dituzte teknologia berriak, komunikatzeko, fitxategiak bidaltzeko, informazioa bilatzeko, jolasteko, jendea ezagutzeko. Baina, aldi berean, errealitate honetan jaio eta hazi dira, eta, askotan, ez dituzte nahikoa balioesten erabiltzen dituzten tresnak.

Tresnen balioespena estuki lotuta dago tresna horiek erabiltzen ditugun moduarekin. Hezitzaileak garen heinean, sareak hezkuntzaren ikuspegitik eskaintzen dituen abantailak ikusarazi behar dizkiegu ikasleei; azken batean, sarean hezteak duen garrantzia adierazi behar diegu.

Sarea aisialdirako edo besteekin harremanak ezartzeko gune moduan ikusteaz gain, eraikitze gune moduan ikusten duen ikasleak gehiago errespetatuko ditu tresna eta ekintzak, eta, beraz, modu arduratsuagoan eta seguruagoan egingo du bidea.

HAU INDARKERIA DA?

DBH I

HELBURUAK

- Indarkeriaren kontzeptua aztertzea.
- Indarkeria diogunean zer esan nahi dugun ulertzea, eta indarkeria motak bereiztea, sarean aurki dezakeguna ere testuingurura ekarriz.
- Sarean gerta daitezkeen indarkeriazko egoeren inguruan gogoeta egitea.

DENBORA

- 30 minutu.

MATERIALA

- Argazkiak eta taula eranskinean dituzue.

TESTUINGURU TEORIKOA

INDARKERIA: maila pertsonal edo instituzionaleko jarrera edo portaera da, aktiboa edo pasiboa, pertsonak bere buruarekin, gainerako pertsonekin eta naturarekin duen harmonia hausten duena, bai indarkeriazko ekintzen bai indarkeriazko egoeren bitartez.

INDARKERIA ZUZENA: ageriko indarkeria da, eraso fisiko bat, adibidez. Kolpe bat, borroka edo liskar bat... Gerra da muturreko adierazpena.

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA: pertsonen subjektibotasunera zuzentzen da, eta haien botere sentimentala ezgaitzen, buru-sufirimendua sortzen do beldurra eta gorrotoa zabaltzen ahalegintzen da. Batzuetan, jolasa dela edo hain larria ez dela irudituko zaigu, baina oso ondorio larriak izan ditzake.

EGITURAZKO INDARKERIA: gizartearen zati da eta oharkabean joan daiteke, gizartearen funtzionamenduari lotutako egoera naturaltzat onartzen dugulako. Pobrezia edo lan falta dira horren adibideak.

INDARKERIA KULTURALA: diskurtso edo jarrera deskalifikatzaileak dira, nagusitasun-sentimenduak goratzen dituztenak edo bazterkeria sustatzen dutenak. Adibidez, arrazakeria edo matxismoa.

JARDUERAREN GARAPENA

Jardueraren hasieran, indarkeriaren definizioa aztertuko dugu, eta hainbat indarkeria mota bereiziko ditugu

(indarkeria motak ez dira definituko, soilik izendatu egingo ditugu). Hortik abiatuta, taldeka jartzeko eskatuko diegu, eta talde bakoitzak argazkiak aztertuko ditu.

Ondoren, taldeek argazkiei buruzko gogoeta egingo dute, eta argazki bakoitzari zer indarkeria mota dagokion identifikatu beharko dute.

Gero, beheko galderetan oinarrituta, irakasleak debatea bultzatuko du ikasgelan, indarkeriari, indarkeria motei eta hori gauzatzeko moduei buruz, eta testuinguru birtualera zuzenduko du une oro debatea.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Gogoeta zuzentzeko lagungarri izan daitezkeen galderak:

Indarkeria identifikatzen duzue argazki eta testu hauetan? Ikusten baduzue, nolakoa da? Nola adierazten da?

Hainbat modutan gerta daiteke?

Zer ondorio ditu?

Edozerk balio du helburua lortzeko?

Nork jasaten du indarkeria?

Nork ateratzen du onura indarkeria horretatik?

Indarkerian oinarritutako gizartean bizi gara?

Indarkeriaz jokatzeko dugu?

Internet bidez indarkeria gauza daiteke?

Nola?

Guk geuk sarean indarkeria erabiltzen dugu?

ONDORIOAK

ARIKETAREN EMAITZA

1. argazkia: indarkeria zuzena.
2. argazkia: indarkeria psikologikoa.
3. argazkia: indarkeria zuzena.
4. argazkia: egiturazko indarkeria.
5. argazkia: indarkeria kulturala.
6. argazkia: egiturazko indarkeria.

SAREKO INDARKERIARI BURUZ

Maila txikiagoan, pertsonen arteko harremanei dagokienez, nahi duguna lortzeko portaera lehiakorrak eta indarkeriazkoak erabiltzeko joera dugu. Indarkeriazko jokaerei konponbidea bilatzeko helburuarekin esertzeko eta hitz egiteko zailtasunak ditugu.

Indarkeria erabiltzeak neke emozional handiagoa sortzen digu, eta harreman gatazkatsua dugun pertsonetikiko harremanak kaltetzen ditu.







Ez ditugu indarkeriazko jarrerak erabiltzen, gizakiok indarkeria berezkoa dugulako (hori ez da egia), horrela ikasi dugulako baizik.

Ez digute erakutsi jarrera horiek modu eraikitzailean lantzen; horretarako, gatazkari buruz barneratuta dugun ideia hau baztertu behar dugu: bi alderdiren arteko borroka, non biak besteari irabazten saiatuko diren. Nazio Batuen Erakundeak salatu du Internetekin eta sakelako telefonoekin batera ziberlarderiaren kultura sortu dela. (Haurren aurkako indarkeriari buruzko Mundu Azterketa, 2005)

Internet sortu zenetik, indarkeria behin eta berriz errepikatzen den gune bat ireki da, eta modu, adierazpen eta neurri berriak hartu ditu aldi berean.

Zenbait kasutan, zapalkuntzarako eta bazterketarako modu berriak sortu direla ikusi dugu, eta, beste batzuetan, sarearen erabileraren bidez indarkeria erabiltzeko moduak areagotu egin direla hauteman dugu.

Eragin-trukearen ikuspegitik, Internet bidezko harremanak azkar mugitzeko aukera ematen du, harreman-sareak berehala sor daitezke, informazioa biderka daiteke, eta baita laguntza, elkartasuna etab. ere, baina, horrez gain, nazio mailako nahiz nazioarteko legediek behar bezala araututa ez dituzten delituak egiteko baliabide ere bada. Interneteko delituen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke: grooming-a (adingabeen aurkako sexu-jazarpena sarean) sexting-a (sexu-educia duten irudiak, argazkiak edo bideoak bidaltzea sakelako telefonoaren bidez), haur-pornografia, delitu informatikoak, iruzurra, sektak, **ziberbullying-a** (parekoen arteko jazarpena sarean)...

ARGAZKIA	INDARKERIA MOTA
	
	
	
	
	
	

// ZER EGITEN DUGU SAREAN?

DBH I

HELBURUAK

- Zer tresna eta zer helbururekin erabiltzen ditugun aztertzea.
- Sarean egiten ditugun ekintzek guretzat eta besteentzat dituzten ondorioak aztertzea.

DENBORA

- 30 minutu

MATERIALA

- Inkesta eranskinean duzue.

TESTUINGURU TEORIKOA

Nerabeek teknologia berriak modu desegokian erabiltzearen ondorioz hautemandako arazo askotan egiaztatu da arazoan inplikaturako nerabeak ez direla jabetzen arazo horrek sortutako ondorioen garrantziaz, hau da, ez dituztela ezagutzen beren ekintzek bai beraiengan bai beste pertsona batzuegan sor ditzaketen ondorioak.

Hala, bada, oraingoan ere, erabiltzaileek sarean nabigatzerakoan duten informazio faltak sortutako egoera da hori.

Beraz, kasu gehienetan, erabiltzaileak ez du kalterik eragiteko asmorik, sarean harremanak ezartzeko orduan dituen ohiturak kalteak eragitea ekar dezakeen arren.

Nabigatzerakoan egiten ditugun ekintzei buruzko gogoetak eta azterketak jarraibideak eman diezazkiokete erabiltzaileari, ekintza horien ondorioak neurtzeko eta etorkizunean erabiltzailearentzat edo hirugarren pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen antzeko ekintzak zuzentzeko edo saihesteko.

JARDUERAREN GARAPENA

Eranskineko inkesta banaka bete beharko dute ikasleek. Inkesta bete ondoren, bateratze-lana egingo da, eta pertsona bakoitzak zer ondorio atera dituen adieraziko du.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Inkesta betetakoan, bateratze-lana egingo dugu talde handian, emaitzak guztion artean aztertzeko. Honako galdera hauetan oinarrituta gidatuko du gogoeta irakasleak:

Zuen ustez, modu seguruan nabigatzen duzue?

Galdetu diozue inoiz zuen buruari sarean inori kalterik eragin diozuen?

Inkestako egoerak esajeratuak iruditzen zaizkizue?

Zergatik?

Jazarpen-egoera bat larria iruditzen zaizue? Edo ez da hainbesterako?

Zuen ustez, biktimari kalterik eragin diezaioke?

Nola sentituko zinateke horrelako zerbait egingo balizute?

ONDORIOAK

SAREKO INDARKERIARI BURUZ

Garrantzitsua da ikasleek beren nabigatzeko ohiturak aztertzea eta beren buruari edo hirugarren pertsona bati eragin diezaioketen kaltea balioestea.

Ikasleek abilezia handiz erabiltzen dituzte teknologia berriak, erraz barneratzen dute tresnak ondo erabiltzeko eta eskaintzen dizkieten aukerei probetxu ateratzeko trebetasuna, baina ez dakite ikuspegi etiko eta arduratsutik “nola” erabili behar dituzten.

Kasu askotan, ez dira jabetzen erabiltzen dituzten tresna batzuen arriskuez. Izan ere, ez dute izan tresna horiek modu egokian nola erabili behar dituzten irakasteko hezkuntza-erreferenterik.

Beraz, premiazkoa da beren hezkuntza-erreferenteek kode moral horiek adieraztea, ikasleek arduraz nabigatzen dutela eta sarean egiten duten ekintza bakoitzaren ondorioez jabetzen direla bermatzeko.

// eranskinak - INKESTA

DBH I

Inoiz horrelako ekintzaren bat egin baduzu... X bat jarri

- “Whatsapp talde batean ikaskide gehienak erantsita ditut, eta ikaskide baten argazki manipulatu eskegi dut, edo esaldi iraingarriren bat idatzi dut”
- “Aurreko batean institutukook irteera bat egin genuen. Ikaskide gehienak Instagramen erantsita ditut, eta irteeran taldeari atera nion argazki bat eskegi dut”
- “Eskolan nire lagun batekin sartzen dira, batez ere pertsona bat, eta mezu anonimo bat bidali diot mugikorrera, nire lagunarekin berriz sartzen bada ondorioak jasango dituela esanez”
- “Beste pertsona bat ordezkatu dut sare sozial batean, eta mezuak idatzi ditut pertsona horren izenean”
- “Inoiz beldur pixka bat ematen duten gauzak bidali ditut, baina jolasteko asmoz beti”
- “Ikasgelako mutil/neska ederrenaren/zatarrenaren bozketan parte hartu dut inoiz Interneten, edo puntuazioak eman ditut”
- “Web orriren batek eskatzen dizkidanean, nire datu pertsonal guztiak ematen ditut (helbidea, mugikorraren zenbakia...)”
- “Nire gelako baten oso antzeko erabiltzaile-izena erabili dut kontu bat egiteko. Haren izenean erabili nuen”
- “Zerbait erosi dut Interneten nire gurasoen baimenik gabe”
- “Beste pertsona batzuen argazkiak edo datuak jarri ditut nire sare sozialetan, horretarako baimenik eskatu gabe”
- “Nire lagunaren horman esaldi iraingarriak idazten ditut”
- “Inoiz birusen bat eta Spyware-a bidali dut”
- “Nire neska-lagunak/mutil-lagunak Whatsapp-a azken aldiz zer ordutan begiratu duen kontrolatu ohi dut”

Orain, kalkulatu puntuazio osoa

0-2 puntu:

Zorionak! Errespetu handiz jokatzeko duzu sarean; jarraitu horrela eta gogoratu: ez egin besteei zuri egitea nahiko ez zenukeena!

3-5 puntu:

Jokatu arretaz eta egin gogoeta sarean duzun jokabideari buruz; batzuetan, jolasean ari garelakoan, min handia eman diezaiekegu besteei.

6-8 puntu:

Kontuz! Modu arriskutsuan jokatzeko duzu sarean, zure ekintza asko desegokiak edo legez kanpokoak dira. Norbaiti min handia eman diezaiokezu.

8 puntu baino gehiago:

Oso modu arriskutsuan nabigatzen duzu sarean; sarearen bidez jazarpena egiten duzula jakin behar duzu, eta zuri, agian, jolasean ari zarela iruditu arren, zure ekintzak larriak dira eta norbaiti kaltea eragiten ari zara. Anonimotasunaren atzean ezkututzen zarela uste duzu, baina gure ekintza guztiek ondorioak dituztela jakin behar duzu. Pentsatu zertan ari zaren eta saiatu biktimaren tokian jartzen: nola sentituko zinateke norbaitek mehatxatuko bazintu? Nahikoa da!

// BI MUNDU

DBH I

HELBURUAK

- Sarearen barnean eta saretik kanpo ditugun jarrera eta portaera desberdinak aztertzea.
- Sarearen barnean eta kanpoan barneratuta ditugun kode moral desberdinak aztertzea.

DENBORA

- 30 minutu.

MATERIALA

- Zatar-papera.
- Post-itak.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Adingabeen eta teknologia berrien arteko eragin-trukean kode moralak barneratzea falta da, hau da, hainbat kontzeptu distortsionatu egin dira kanpoko errealitatek sarera igarotzerakoan eta sarearen barneko errealitatean bertan. Zenbait kontzeptu, hala nola “lagunak”, “foroa” edo “intimitatea”, aldatu egin dira, eta adingabea egoera zaurgarrian eta, askotan, arriskuan jartzen dute, horretarako asmorik ez izan arren.

Gauza intimoak sarean erlatibizatzea (datu pertsonalak, informazio pertsonala, argazkiak) eta “adiskidetzat” ditugun 500 pertsonarekin partekatzea ekintza arriskutsua izan daiteke, eta adingabeari eta horren hezkuntza-erreferenteei zuzendutako sentsibilizazio-lana egin behar da.

Beraz, kontzeptu horiek argitzea, barneratzea eta modu egokian erabiltzea izango da esparru honetan egin beharreko sentsibilizazio-lanaren oinarria.

JARDUERAREN GARAPENA

Zatar-paper zati handi bat bitan zatituko dugu. Zati baten izenburua hau izango da: mundu ez-birtuala; eta besteara: mundu birtuala.

Zati horietako bakoitza beste 8 zatitan zatituko dugu, eta honako galdera hauek jasoko dituzte:

- Adiskide kopurua:
- Zenbat pertsonarekin partekatzen ditugu gure sekretuak?
- Datu pertsonalik ematen dugu (telefonoa, helbidea, non ikasten dudana...)? Bai/Ez
- Informazio pertsonalik ematen dugu (nora joan behar dudana, norekin nagoen...)? Bai/Ez
- Argazki pertsonalak partekatzen ditugu? Bai/Ez

- Taldekako argazkiak partekatzen ditugu? Bai/Ez
- Hirugarren pertsonari buruzko informazioa ematen dugu (argazkiak, datu pertsonalak...)? Bai/Ez
- Taldearen barnean inor kritikatu dugu? Bai/Ez

Ikasle bakoitzak 8 post-it izango ditu galdera bakoitzari erantzuteko, eta zatar-paperean dagokion tokian itsatsiko du erantzuna.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek dinamika amaitu ondoren, atal bakoitzeko post-it guztiak irakurriko ditugu, eta ondorengo azterketa hau egingo dugu ikasleekin batera:

- Lagun berberak ditugu sarearen barnean eta kanpoan?
- Sarean ditugun lagun guztiak gure "lagunak" dira?
- Konfiantza berbera dugu lagunekin saretik kanpo eta sarearen barnean?
- Gauza berberak partekatzen ditugu sarearen barnean eta kanpoan?
- Jarrera berbera dugu sarearen barnean ezezagun batekin eta ezagun batekin?
- Gauza berberak egiten ausartzen gara sarearen barnean eta kanpoan?
- Irizpide berbera erabiltzen dugu lagunak hautatzeko sarearen barnean eta kanpoan?
- Gauza pertsonalak, sekretuak, errazago partekatzen ditugu sarearen barnean edo kanpoan?

ONDORIOAK

Ikasleen jokabidea erabat desberdina da sare barruan dabiltzanean eta saretik kanpo dabiltzanean. Saretik kanpo, oso ondo dakite zer dagoen gaizki eta zer ondo, kode moral horiek helarazi dizkieten hezkuntza-erreferenteak izan dituztelako aurrez. Alde batean eta bestean barruko kontutzat hartzen dutena neurtzeko eta kudeatzeko modu desberdinek zehazten dute jokabide hori.

Lehen distortsioa "lagun" kontzeptuarekin lotuta dago; saretik kanpo, laguntzat hartzen dituztenak aukeratzeko irizpidea askoz ere zorrotzagoa da. Beren gauzak, kezka, sekreturik barrukoena nori kontatuko lizkioketen aztertuz gero, horrelako kontuak ez lizkiokete kontatuko lauzpabost laguni baino gehiagori; baina, sareko harremanetan, "lagunak" aukeratzeko irizpidea asko lausotzen da, eta kezkarria da hori. Adiskidetasunaren ikuspegi horretan, tartean behingo harremanak dituzten jendea, ia ezagutzen ez duten jendea edota ezezagunak daude.

Halako distortsio batez ikusten den beste kontu bat dakar horrek: "barrukotasuna". Izan ere, saretik kanpo kontzeptu hori zorrotz zaindu arren eta "barruko" kontuak soilik lagun minenekin partekatu arren, argazkiak eta informazio pertsonala laguntzat hartzen dituzten pertsona guztiekin parteka ditzakete sarean, eta, sare sozialek sarea handitzeko zer ahalmen duten ikusita, 300, 500 edota 800 lagun ere izan daitezke guztira.

Azken distortsioa ikusaraziko digu horrek, "foro" kontzeptuarena; hau da, informazio pertsonala partekatzen dugun pertsonen edo hirugarrenen kopurua. Saretik kanpo, oso ondo neurtzen dute informazio mota bat zenbat jendekin partekatuko duten; baina, sarearen barruan, ahaztu egiten dute edo irizpide hori ikusezin bihurtzen da, eta gai dira beren barruko kontuak jendearekin mugarik gabe partekatzeko.

Beraz, hezitzaile garen aldetik sarean adingabearen segurtasuna hobetzeko landu behar dugun helburu nagusietako bat sareko kode moral horiek helaraztea da.

// ALBISTEEN BILA

I° ESO

HELBURUAK

- Sarearen erabilerarekin lotutako prebentzio-neurriak eta aholkuak ezagutzea.
- Zibereskubideak ezagutzea.
- Gure gizartean, sarearen bitartez gertatzen diren gehiegikeria- eta jazarpen-egoerak aztertzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Albisteak eranskinean dituzue.
- UNICEFen dekalogo: “Haurren e-eskubideak”, eranskinean.
- Sarean jasan ditzaketen arriskuen aurreko aholkuak eta neurriak, horiek ere eranskinean.

TESTUINGURU TEORIKOA

UNICEFen dekalogo: “Haurren e-eskubideak”.

Sarean jasan ditzaketen arriskuen aurreko aholkuak eta neurriak.

Biak eranskinean dituzue.

JARDUERAREN GARAPENA

Ikasleak lau taldetan banatuko ditugu, eta toki desberdinetan kokatuko ditugu; talde bakoitzak hiru zerrenda izango ditu: haurren zibereskubideei buruzkoa, eta teknologia berrien aurreko neurriei eta aholkuei buruzkoa. Halaber, talde bakoitzak hainbat albisteren prentsa-dosierra izango du (eranskinean duzue).

Ondoko agindu hau emango diegu: talde bakoitzak, lehenik, zibereskubideak eta aholkuen eta neurrien zerrenda irakurriko ditu, eta, ondoren, albisteetan oinarrituta, horixe baita errealitate hurbilena, zer eskubide urratu diren idatziko dute.

Amaitzen duten heinean, lau taldeek albisteetan aurkitu dituzten eskubide-urraketen bateratze-lana egingo dute, eta, albiste bakoitzean deskribatutako kasuaren arabera, zer neurri eta zuzenketa aplikatu beharko liratekeen zehaztuko dute. Gero, irakaslearen galderetan oinarrituta, jardueraren azterketa egingo dute.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Saioa zuzentzeko lagungarri izan daitezkeen galderak (aukerazkoak):

*Ikus dezakezuenez, zibereskubideek guztioi eragiten digute gure eguneroko zereginean.
Jazarpen edo tratu txar zibernetikoaren beste egoeraren bat ezagutzen duzu, ikusitakoez gain?
Ikastetxean, zure auzoan, zure herrian edo hirian?
Nola lagunduko zenuke zure inguruan zibereskubideak errespetatu daitezen?
Eta munduko gainerako tokietan zerbait egin dezakezue?
Zer neurri mota har dezakegu albisteek deskribatzen dutena gerta ez dakizuen?*

Adingabeek sarea erabiltzerakoan dituzten uste okerrak

*Albistean agertzen diren datuak ezagutzen zenituen?
Zer eskubide mota hautsi dira? Izan duzu inoiz anonimotasunean babestuta zerbait egiteko tentazioa? Badakazu informaziorik informazio jakin batek sarean izan ditzakeen arriskuei eta har dezakeen neurriari buruz?*

Informatika-irakasle bati 16 urteko zigorra ezarri diote adingabeen ziberjazarpenagatik

Albistean agertzen denaren antzeko kasurik ezagutzen duzu inguruan? Aholkuak eta neurriak nahiz zibereskubideak kontuan hartuta, zer neurri hartuko zenituzke sarean jazartzaile batekin topo egingo bazenu?

ONDORIOAK

Giza eskubideak bezalaxe, haurren eskubideak ere egungo garaien arabera eguneratu behar dira, eskubide horiek urratzeko modu berriak agertzen baitira etengabe. Globalizazioaren ondorioz, mehatxuak edo jazarpena jasaten dituen pertsonak ez dauka egon beharrik mehatxatzen duen pertsona dagoen eremu geografiko berean.

Halaber, teknologia berriekin lotutako delituen inguruko lege-hutsune handiak daude, eta, lehen adierazitako datua kontuan izanda, herrialde bakoitzeko legedia desberdina denez, zailtasunak are handiagoak dira. Bestalde, IKTak abiadura handiz bilakatzen dira, eta prebentzio-neurriak hartzea ere oso konplexua da. Bestalde, pertsona helduek alor honi buruz duten ezagutza oso urria da, azkenean erabakiak eurek hartu behar dituzten arren eta ekintzak garatzea eurei dagokien arren.

Azkenik, haurren eskubideek beroriek betetzen direla bermatzeko egiten den esku-hartze bakoitzari zer neurri dagozkion identifikatu behar dute, bestela, esparru horietakoren batean haurren eskubideak urratzea ahalbidetzen ariko baikara. Beraz, giza eskubideak eta haurren eskubideak errespetatzeko eta eskubide horiek betearazteko esparrua berriro behar dugu, bestela atea irekiko baitiegu indarkeria guneei, eta bizikidetzaren atea irekiko baititugu.

// eranskinak - NEURRIAK ETA AHOLKUAK

DBH I

- Arretaz ibili datu pertsonalak ematerakoan, zaindu non agertzen diren eta nori ematen dizkiozun: izena, telefonoa, helbidea, argazkiak, ikastetxea... Zutaz zenbat eta gutxiago jakin, orduan eta seguruago egon eta sentituko zara. Arretaz ibili txat irekietan edo areto pribatuetan azaltzen duzunarekin ere; izan ere, besteentzako pistak izan daitezke zuei buruzko datuak eskuratzeko. Ezizenak eta irudizko izenak erabili beti.
- Arreta berezia ipini Interneteko etiketa edo jokamoldeetan: agurra, zure aldartea edo asmoa adierazten duten grafikoen erabilera (aurpegierak) eta abar. Pentsa zure solaskideak beste kultura edo errealitate sozial batekoak izan daitezkeela eta benetan esan nahi duzuna gaizki uler dezaketela. Gaizki-ulerturen bat izanez gero, ahalegindu modu onez argitzen.
- Ez erantzun inoiz probokazioei, eta are gutxiago haserre bazaude. Egin minutu batzuetan entretenituko zaituen zerbait, idazten hasi aurretik lasaitzeko. Erantzuten baduzu, gauzak okertzeaz gain, ziberzapaltzaileari eman diezaiokezun pozik handiena emango diozu.
- Mehatxua edo jazarpena modu iraunkorrean gertatzen denean, saiatu gertatutakoaren froga gisa ahal duzuna gordetzen, itxi konexioa eta eskatu laguntza heldu bati (adibidez, mehatxatzen zaituena ikastetxekoa bertakoa dela uste baduzu, hitz egin orientatzailearekin).
- Ez suntsitu ziberbullying-aren frogak (testu-mezuak, web orria eta abar).
- Saiatu zibererasotzailea identifikatzen (haren IP aztertu, informatikan adituak direnei eta poliziari laguntza eskatu).
- Jarri harremanetan jazarpena egiteko erabili den bitartekoaren konpainiarekin (telefono-konpainia, web orrialdearen jabea...).
- Gertatutakoaren berri eman ikastetxeari, zuzendariari eta orientatzaileari, beharrezko laguntza jasotzeko.
- Eskola-jazarpenean espezializatutako erakundeetara jo.
- Salatu jazarpena poliziaren aurrean.

UNICEFEN DEKALOGOA: “HAURREN E-ESKUBIDEAK” (2004)

1. Informaziorako eta teknologietarako sarbidea izateko eskubidea, sexu, adin, baliabide ekonomiko, herritartasun, etnia, bizileku eta antzeko arrazoiengatik diskriminaziorik jasan gabe. Sarbiderako eskubide hori ahalmen urriko haurrei aplikatuko zaie bereziki.
2. Libreki adierazi eta elkartzeko eskubidea. Sarearen bidez mota guztietako informazioak eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko eskubidea. Eskubide horiek haurren ongizaterako, garapenerako eta segurtasunerako kaltegarriak izan daitezkeen informazio eta materialen aurrean haurren babesa bermatzeko soilik murriztuko dira; horrez gain, baita legeak, segurtasuna, eskubideak eta beste pertsonen izen ona errespetatzen dela bermatzeko ere.
3. Interneten haurrei eragiten dieten legeak edo arauak aplikatzen direnean, kontsultatuak izateko eta iritzia emateko duten eskubidea; hala nola edukien murriztapena, abusuen aurkako borroka, sarbide murriztapenak eta abar.
4. Internet erabiliz sortzen den esplotazioaren aurka, legez kanpoko merkataritzaren aurka eta mota guztietako jazarpen eta indarkeriaren aurka babesteko eskubidea. Haurrek Internet erabiltzeko eskubidea izango dute, aipatu abusetatik babesteko eta beren eskubideak ezagutarazi eta defendatzeko.

5. Garapen pertsonalerako eta heziketarako eskubidea, eta baita Internetek eta bestelako teknologia berriek prestakuntza hobetzeko eskain ditzaketen aukeratarako eskubidea ere. Haurrei zuzendutako eduki hezigarriek egokiak izan behar dute haien ongizatea sustatzeko, gaitasunak garatzeko, giza eskubideekiko eta ingurumenarekiko errespetua bultzatzeko eta gizarte askean herritar arduratsuak izateko.
6. Intimitaterako eskubidea bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioetan. Sarean datu pertsonalak ez emateko eta nortasuna eta irudia legez kanpoko erabileretatik gordetzeko eskubidea.
7. Aisiarako, jolaserako eta dibertitzeko eskubidea, baita Internet eta bestelako teknologia berrien bidez ere. Interneteko jolas eta aisiarako proposamenek doako indarkeriarik, mezu arrazistarik, sexistarik edo iraingarririk ez izateko eskubidea, haurren eta beste pertsonen eskubideak eta irudia errespetatuz.
8. Gurasoek seme-alabak orientatu, hezi eta haiekin Interneten erabilera arduratsua egiteko adostasunak hartzeko eskubidea eta ardura izango dute: erabilera-denborak zehaztea, bisitatu behar ez diren orrialdeak finkatzea, mezu eta egoera arriskutsuetatik babesteko eman behar ez duten informazioa zehaztea eta abar. Horretarako, gurasoek ere Interneten erabileraren berri izan behar dute eta Interneteko edukiak ezagutu behar dituzte.
9. Herrialde garatuetako gobernuek konpromisoa hartu eta lankidetzan jardun behar dute beste herrialdeei, haietako herritarrei eta, bereziki, haurrei Interneterako eta informazioaren beste teknologietarako sarbidea errazteko; horrela, haien garapena sustatzeko eta herrialde aberatsen eta pobreen arteko muga berria sortzea saihesteko.
10. Teknologia berriak erabiltzea etekina ateratzeko eta norberaren alde egiteko, hala mundu osasuntsu, baketsu, solidario, justu eta ingurumenarekin errespetagarriagoa eta haur guztien eskubideak errespetatuko dituen mundurako urratsa emateko eskubidea izateko.

diariodecadiz.es

Adingabeak hertsatzen zituen ziberjazartzailea teknikari informatikoa da

Chipionako 24 urteko gazte langabea Madrid 5 kartzelan sartu dute, Soto del Realen; biktimen kopurua 300 ingurukoa izan daiteke

Kameleoi izendatu dute Jorge M.C. kartzelatzea lortu duen operazioa; Chipionako 24 urteko gaztea Internet bidez emakume eta adingabe asko eta asko hertsatzeaz eta mehatxatzeaz akusatuta dago, sexu-educia zuten fitxategiak bidaltzeko eskatzeagatik. Polizia Nazionaleko Ikerketa Teknologikoko Brigadak operazioa izendatzeko erabili duen izenak badu bere arrazoa: badirudi gutxienez hamabi nortasun erabili zituela erasotzaileak biktimak beldurtzeko eta horiei xantxia egiteko.

Ondo baino hobeto moldatzen zen sareen sarean. Izan ere, teknikari informatikoa da, une horretan langabezian zegoen arren.

Lehenagotik ere bazuten Interneteko jazartzaile honen berri segurtasun-indarrek. 2008ko urrian atxilotu zuten lehenengo aldiz, Madrilgo neska adingabe batek jarritako salaketa baten ondorioz.

Gazteari hurbiletik jarraitzen zioten 'ziberpolizia' espainiarrek berriro atxilotu zuten duela gutxi; mehatxuekin eta estortsioekin aurrera jarraitzen zuela egiaztatu ondoren, epailearen aurrera bidali zuten, Madrilen. Eta oraingo honetan kartzelan sartu dute, Soto del Realgo Madrid 5 kartzelan, hain zuzen.

Atxiloketaren albisteak entzute handia izan du. Estatu osoko komunikabide askok eman dute ziberjazartzaile arriskutsu hau atxilotzea ahalbidetu duen operazioaren berri; izan ere, duela zenbait hilabete atxilotu zuten arren, berean jarraitzen zuen, eta biktimen kopurua gero eta handiagoa zen. Orain dela gutxi arte 250 biktimaz hitz egiten bazen ere, kopuru hori 300etik gorakoa izango da azkenean.

Kartzelatutako gazteak neska izango balitz bezala jokatzeko Interneten, beste neska batzuen konfiantza bereganatzeko; gehienetan adingabeak izaten ziren, eta horietako asko atzerrian bizi ziren. Sexu-educia zuten eta beraiek agertzen ziren bideoak eta argazkiak bidaltzeko konbentzitzen zituen. Material hori eskuratu ondoren, biktimak hertsatzen eta mehatxatzen zituen. Askotan, biktimen ordenagailuen eta posta elektronikoko kontuen kontrola ere eskuratzen zuen, programa informatikoen bitartez. Jazarpena egiteko formula horri 'grooming' deritza, eta adingabeen eta nerabeen aurka zuzentzen da, ez baitute eragozpenik jartzen ezezagunei datu pertsonalak eta irudi konprometigarriak emateko.

Adingabe batek Madrilen salaketa jarri ondoren abiarazi zen ikerketa. Internet bidez ezagutu zuen pertsona batek biluzik agertzen zen bere irudi bat lortu zuela azaldu zuen. Orduan, mehatxuak jasotzen hasi zen. Chipionakoak bideo eta argazki pornografiko gehiago eskatzen zizkion. Astero bidaltzen ez bazizkion, "publikoki umiliatuko" zuela esaten zion. Adingabeak amore eman zuen xantxiaren aurrean. Eta baita beste askok ere.

COPE.es

Adingabeek sarea erabiltzerakoan dituzten uste okerrak

Adingabearen Defendatzaileak gida bat argitaratu du, Interneten egiten dituzten legez kanpoko akatsez kontzientziatzeko.

Eskuliburu berriak modu argian azaltzen ditu sareko legez kanpoko ekintzak

*“Interneten ezin naute identifikatu, anonimoa naiz”. “Adingabea naizenez, ezin didate ezer egin”. “Ez nuen ezer txarrik egin, grabatu eta sarera igo nuen, besterik ez”. Horiek dira fiskaltzetan eta adingabeen epaitegietan **gehien entzuten diren esaldietako batzuk**. Sarean sortutako arazoan ondorioz iristen diren gehienek uste dute ez dutela ezer txarrik egin, eta gero zigorrak jasotzen dituzte: kargu-hartzeak, hezkuntza eta gizarteko zereginak, edo, batzuetan, zentroren batean sartu behar izaten dute (erregimen itxian, irekian, erdi-irekian edo terapeutikoan). “Gazteek abstrakzioarako gaitasun txikia dute”, azaldu du Jorge Floresek, PantallasAmigas ekimenaren lehendakariak. “Ez dituzte mundu errealeko kontzeptu batzuk Internetera eramaten. Adibidez, ez dira jabetzen orri batean idatzitako eta tiradera batean gordetako zerbait mutiko batek bere ordenagailuan izan dezakeen mezu baten parekoa izan daitekeela. **Badakite eguneroko bat pribatua dela**, eta ez dagoela ondo hori irakurtzea, baina ez dakite digitalean ere balio bera duela horrek, eta, are okerrago, ondorioak dituela.”*

Gazteenek **sarean legez kanpoko ekintzak egiteko** duten kontzientzia falta horren ondorioz, Adingabearen Defendatzaileak neurriak hartu behar izan ditu. Arazoa da haurrak helduen erreferenterik ez dagoen mundu batean hazten ari direla. Telemadrid katea “Pentsa ezazu argitaratu aurretik” izenburupean egiten ari den kanpainaz gain, “E-legales” gidaren 1.500 ale banatu dira ikastetxeetan eta erakunde publikoetan. Interneten legearen barruan aritu nahi duen jendeari zuzendutako gida, **PantallasAmigas erakundearen laguntzarekin** idatzitakoa. “Gida hau beharrezkoa zela uste dut, mahai gainean dauden gaiak buruz hitz egitera esertzeko, hala nola sexu-jazarpenari buruz, sarean gertatzen diren mehatxuei buruz nahiz Internetera igotzen diren argazki eta bideo guztien intimitaterako eskubidearen arazoari buruz”, dio Floresek.

Eskuliburuak argi eta adingabeak ulertzeko modu errazean azaltzen du sarean zer ekintza diren legez kanpokoak. **Hamar kasu praktikoren bidez** (lagun baten Messenger kontua erabiltzea, ikaskide baten argazkiak Interneten argitaratzea edo sare sozialen bidez irakasleak erasotzea eta kritikatzeko), adingabea jabetuko da Interneten egin dezakeenaz eta legez kanpoko denaz. “Beren argazki edo argitalpenak norik ikusiko dituen pentsatzen dutenean sortzen da arazoa, beren lagunengan edo beren adineko gazteengan pentsatzen baitute soilik”, adierazi du Floresek. “Ez dira jabetzen gurasoek, auzokoek edo beren etsairik handienak ere ikus ditzakeela. Ez dute gogoeta hori egiten.” Floresen arabera, adingabeak ez dira jabetzen web-kamerak den-dena grabatzen duela, ordenagailuaren pantailan agertzen dena kopian eta erreproduzitu egin daitekeela, eta, are, ez dute inoiz pentsatzen beren ekintzek lege-ondorioak izan ditzaketela. “Arazoa da haurrak helduen erreferenterik ez dagoen mundu batean hazten eta gizartekotzen ari direla. Beren eredu bakarra beren burua da. Horregatik, garrantzitsua da gida hau argitaratzea, kontzientzia daitezen”, amaitu du PantallasAmigas erakundeko lehendakariak.

www.farodevigo.es

FARO DE VIGO

Guardia Zibilak 12 urteko neska baten aurkako 'sexting' kasu bat hauteman du Pontevedran.

Delitu Teknologikoen Unitateak adingabeen argazki intimoak zabaldu dituzten 4 kasu ikertu zituen probintzian, bata Vigo inguruan – Arazoa telefono adimendunekin areagotu zen

M. Fontán | Vigo

Teknologia berrien erabilera okerra adingabeen artean gero eta arazo larriagoa da. Aurten, Guardia Zibilak 'sexting' deritzonaren lau kasu hauteman ditu Pontevedrako probintzian, eta argazki intimoak hedatu dituztenak nahiz biktimak adingabeak dira kasu guztietan. Ikerketa horietako bat Vigo inguruan garatu da, eta, beste batean, 12 urteko Pontevedrako eskualdeko neskato baten irudiak hedatu dituzte sarean. Adituek diote kasu hauek izugarri egin dutela gora azken belaunaldiko sakelako telefonoak hedatu direnetik, nerabeen artean telefono horien erabilera oso zabaldua baitago, eta sare sozialetara edo mezularitzako zerbitzuetara –WhatsApp adibidez– sartzeko aukera baitute gazteek.

“Horrelako kasuak gero eta ugariagoak dira, batez ere sakelako telefonoetan Interneten erabilera zabaldu zenetik, adingabe askok baitituzte eskura tresna horiek”, adierazi du Gonzalo Sotelok, Pontevedrako Guardia Zibileko Delitu Teknologikoen Unitateko arduradunak. Aditu horrek –arazo honi irtenbidea emateko gakoa nerabeen nahiz horien gurasoen “heziketari” dagoela dio– Barrié fundazioak eta Arela elkarteak Vigon antolatutako “Adingabearen legea: esku hartzeko erronkak” jardunaldietan parte hartu zuen atzo.

Buru den unitateak biktimak adingabeak ziren lau sexting-kasu ikertu zituen aurten: mutil bat eta hiru neska. Kasu guztietan, biktimen argazki intimoak hedatu zituzten WhatsApp bidez, biktimen baimenik gabe, jakina. Irudi horiek biktimek ikasten duten ikastetxeetako ikaskideen telefonoetara iritsi ziren. Kasu horietako batean, kaltetuak 12 urte zituen argazki horiek atera zituenean eta bere mutil-lagunari telefonoz bidali zizkionean. Duela bi urte gertatu zen hori, eta irudi horiek 2014an hedatu ziren, modu indiskriminatuan eta baimenik gabe. “Biktimak jasaten duen kalte psikologikoa oso handia da; arazo hau guk nahi baino zabalduago dago”, ohartarazi du Gonzalo Sotelok. Eurengana iristen diren kasuez gain, ikastetxeetan eta institutuetan bertan egiten duten lanari esker konpontzen diren kasu gehiago daudela adierazi du. Bestalde, adituak ohartarazi du duela gutxi arte horrelako delituen biktimak adingabeak izaten zirela eta delituak helduek egiten zituztela, baina orain adin nagusitasunera iritsi ez diren nerabeak ere direla “legez kanpoko horrelako ekintzen subjektu aktibo”.

Atzo Vigon egindako jardunaldietan ez zuten soilik hitz egin adingabeek teknologia berriez egiten duten erabilera okerrak izan ditzakeen arriskuez. Ana Pérezek, Arelako Gizarte Gatazkaren Alorreko koordinatzaileak, seme-alabek gurasoei zuzentzen dieten indarkeriaren gaia ere aztertu zutela adierazi zuen. “Indarkeria mota hori asko handitu da”, ohartarazi zuen aditu horrek.

SDPnoticias.com

Sexting eta ziberbullying-eko kasu batean inplikaturako bi nerabe atxilotu dituzte.

Sexting izenez ezagutzen den fenomenoaren –sakelako telefono bidez eduki sexual eta pornografikoko argazkiak edo bideoak bidaltzea– bideo batek neska adingabe baten aurkako bortxaketa kolektiboko eta haur-pornografiako kasu bat azaleratu du Gustavo A. Maderoko batxilergoko eskola batean.

SDPNOTICIAS.COM

Mexiko Hiria.- Procuraduría Capitalina-ko kideek bi gazte atxilotu zituzten, **bortxaketa egiteaz eta pornografiaz** akusatuta; gazteak Eduardo Leopoldo Popoca Vázquez, 19 urtekoa, eta Adán Chávez Rodríguez, 24 urtekoa, dira.

Sexting izenez ezagutzen den fenomenoaren –sakelako telefono bidez eduki sexual eta pornografikoko argazkiak edo bideoak bidaltzea– bideo batek neska adingabe baten aurkako bortxaketa kolektiboko eta haur-pornografiako kasu bat azaleratu du Gustavo A. Maderoko batxilergoko eskola batean.

Bideoa proba gisa erabilia neska adingabeak erasotzaileak salatu ondoren, Poliziak erasotzaile gazteak atxilotu zituen; erasotzaileetako bostek 17 urte dituzte (oraindik ez dituzte atxilotu), eta beste biak adinez nagusiak dira: Eduardo Leopoldo Popoca Vázquez, 19 urtekoa, eta Adán Chávez Rodríguez, 24 urtekoa. Azken bi horien etxean elkartu ziren gazteak, eta lau botila tekila edan ondoren, neska gazteari eraso zioten.

Gazteek eraso grabatu, eta beste ikasle batzuei bidali zieten grabazioa; biktimaren lagun baten eskutara iritsi zen grabazioa, eta horrek biktimari jakinarazi zion. Eskolako hainbat kidek bortxatu egin zutela erakusten zuen grabazioa ikusi zuen arte, neska gazteak ez zekien etxe hartan zer gertatu zen joan den apirilaren 15ean.

Barruti Federaleko Justiziako Prokuradoretza Nagusiko (PGJDF) sexu-delituen esparruko fiskalak, Juana Camila Bautistak, honako adierazpena egin zuen: “Gazteek sakelako telefonoarekin beren buruak biluzik, erdi biluzik edo jarrera konprometigarrietan grabatzeko ohitura dute, eta gero eskolako gainerako kideei bidaltzen dizkiete.”

“Bideoa eskolako neska-mutilen sakelako telefono batetik bestera zebilen. Sexting deritzo horri. Oso bideo gogorra da, beldurgarria. Neskak konortea galduta du, eta argi eta garbi ikusten da mutilek nola bortxatzen duten”, esan zuen PGJDFko delitu sexualen alorreko fiskala den Juana Camila Bautistak.

// NON DAUDE ARRISKUAK?

DBH I

HELBURUAK

- Sareko arriskuak hautematea.
- Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
- Teknologia berriak eta sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Eranskinean erantsitako bideoak.
- Eranskinetako taula.
- Zatar-papera.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Hauek dira teknologia berriak gaizki erabiltzeagatik edo asmo txarrez erabiltzeagatik sor daitezkeen arrisku nagusiak edo orokortuenak:

Ziberbullying: talde batek pertsona bati jazartzea denboraldi batez eta modu jarraituan, teknologia berrien bidez.

Sexting: hirugarren baten argazkiak eta bideoak, eduki sexuala dutenak, bidaltzea eta trukatzeta.

Phishing: iruzurrez beste pertsona baten identitatea hartuta aritzea, haren pasahitza lapurtuta.

Grooming: heldu batek gehiegikeriaz jokatzeta adingabe batekin edo adingabeari xantaia egitea, teknologia berrien bidez.

Arrisku ohikoenak:

1. Berehalako mezularitzaren edo SMSen bidezko jazarpena.
2. Pasahitza lapurtzea.
3. Hirugarren baten identitatea ordezkatzeko sortutako blogak.
4. Hirugarrenen informazioa, bideoak edota argazkiak haien baimenik gabe zabaltzeko blogak, orriak edota profilak.
5. Beste web batzuk (batzuetan, webguneak sortzen dira besteak iraintzeko, edo beste talde batzuei inbarazu egiteko web orriak diseinatzen dira).
6. E-mail bidez edo sakelako telefono bidez argazkiak bidaltzea.
7. Interneteko inkestak.
8. Erabiltzaile anitzeko jolasak.
9. Programa kaltegarriak igortzea.
10. Pornografia eta zabor-mezuak bidaltzea.
11. Besteen identitatea ordezkatzeta.

JARDUERAREN GARAPENA

Eranskinean datozen bideoak ikusiko dira, eta, gero, taula osatuko dute banaka; bideotan sumatu dituzten arriskuak eta arrisku horiek saihesteko hartu beharko liratekeen prebentzio-neurriak idatziko dituzte taula horretan. Gero, emandako erantzunak bateratuko dira, eta, zatar-paperean egingo den taula handi batean, arrisku eta prebentzio-neurri guztiak bilduko dira.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taula handia osatu ondoren, gogoeta hau egingo dute guztiak batera:

Bideoetan deskribatzen diren arriskuak ezagutzen zenituzten?

Horrelako egoerak gerta daitezkeela uste duzue?

Deskribatutako arriskuak saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzen dituzue?

Horrelako egoerak saihets daitezkeela uste duzue?

Sarean nabigatzeko modua aldatu behar dugu?

Saretik kanpo eta sare barruan berdin jokatzeko dugu ezezagunekin?

Saretik kanpo eta sare barruan informazio bera ematen dugu?

Sare barruan eta saretik kanpo lagun berak ditugu?

ONDORIOAK

Askotan, sareko arriskuei aurre egiteko orduan, ekintza batzuei izenak jartzen dizkiegu, edo jartzen dizkiete, eta badirudi kudeatu ezin ditugun errealitateak direla. Hobeto kudeatzeko lagungarri gerta dakizkigukeen ekintza batzuk itzultzen saia gaitezke; azken finean, Internet eta Web 2.0 gunea besteekin bat egiteko edo ez egiteko tokiak dira, bizitza erreala bezalaxe. Arretaz jokatzeko eta berori erakitzea beharrezko zeregina da hazteko, gatazka kudeatzea den bezalaxe.

Grooming-sufritu-ondoan egon

Ziberbullying – gehiegikeria – hitz egin

Sexting - jazarpena - gelditu

Phishing – iruzurra - pentsatu

Laburbilduz, ez dira ez arrisku berriak eta ez arazo berriak nerabeentzat, eta, hezitzaile garen neurrian, beroriei aurre egitea dagokigu guri. Betiko arazoak dira, baina inguru berri batean orain; eta, beraz, gure zeregina da, hezitzaile garen aldetik, ingurune hori gertuagotik ezagutzea eta ulertzea, gure ikasleei laguntzeko.

EKINTZA- ETA PREBENTZIO-NEURRIAK

IKASLEENTZAT

- Ez eman datu pertsonalik sarearen bidez.
- Kontuz sarean zer idazten dugun; irakurri berriro, bidali aurretik.
- Eraso egiten badigute:
 - Lasaitu eta gure ondoeza bideratu.
 - Ez erantzun ziberjazartzaileari.
 - Blokeatu gehiegikeriaz ari den ziberzapaltzailea.
 - Konfiantzazko pertsona heldu bati horren berri eman.
- Horrelako egoerak gerta ez daitezen lagun dezakezu zuk, horrelako jokabideekin jarrera kritikoa azalduz, txantxak asmo txarreko eraso bihur daitezen saihestuz, eta, bereziki, horrelakoren bat gertatzen ari dela ikustean parte ez hartuz baina ez isilduz.

IRAKASLEENTZAT

- Errealitatea aztertu eta ikastetxearen “argazkia” egin.
- Jarduketa-protokolo bat finkatu sareko gehiegikerien aurrean nola jokatu jakiteko.
- Teknologia berriak gertuagotik ezagutu.
- Hezkuntzaren esparruan teknologia berriak zeharkako izaeraz erabili.

GURASOENTZAT

- Interneti, berorren erabilera seguruari, eskaintzen dituen aukerei eta berorren arriskuei buruzko oinarrizko ikastaro bat egin.
- Seme-alabak gertutik zaindu, ziberbullying-a egin ez dezaten eta sufri ez dezaten.
- Arreta handiz jokatu edozein sintomaren aurrean, soseguz erantzun eta seme-alabekiko komunikazioan enpatiari eutsi.

// eranskinak - BIDEOAK

DBH I

<http://www.youtube.com/watch?v=Nrmz0wKCIi0>



<http://www.youtube.com/watch?v=DKmCmYBmKs4>



<http://www.youtube.com/watch?v=HGMJzvSbKzY>



ARIKETARAKO FITXA

SAREKO ARRISKUAK	
HAUTEMANDAKO ARRISKUAK	ARRISKUEI NOLA AURREA HARTU

// ZIRKULUA

DBH I

HELBURUAK

- Gatazkei indarkeriaz aurre egiteko moduak barneratu ditugula onartzea.
- Sarean pertsona bati bidegabeki jazartzen edo erasotzen zaionean, egoera horren aurka egitea.
- Teknologia berrien esparruaren barnean egunero sortzen diren gatazkak arautzeko moduak aztertzea.

DENBORA

- 30 minutu

MATERIALA

- Eranskinetako taula.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berriak eta sare sozialak gaizki erabiltzeak sortzen dituzten gatazka eta arazoaren aurrean, sare sozialetatik kanpo sortzen diren arazo eta gatazken aurrean bezalaxe jokatzeko moduak ohituraz. Horregatik, gatazkaren aurrean guk zer-nolako jarrerak hartzen ditugun, nola erantzuten dugun eta horiei irtenbidea aurkitzen nola saiaterik garen aztertzea garrantzitsua da oso, erabilgarria gertatuko baitzaigu teknologia berriekin edo sare sozialekin lotutako arazo bati aurre egiteko orduan.

JARDUERAREN GARAPENA

Lehen zatia:

Zirkulu bat osatuko dute, eta besoetatik elkarri lotuta egongo dira pertsona horiek zirkuluan. Hankak erdi irekita dituztela, oinaren alde bat ikaskideen oinaren kontra jarriko dute.

Lau pertsona zirkulutik kanpo kokatuko dira, eta honako agindu honi jarraitzeko esango zaie: “Zuen helburua gainerako ikaskideek osatu duten zirkuluaren barrura sartzea da”.

Bigarren zatia:

Bigarren zatian eta taldeka, bi zerrenda bereizi egin behar dira; batean, ezagutzen dituzten “Jazarpen eta tratu txarren agerpenak” jasoko dituzte (beraiek jasan dituztelako edo ikaskideengan ikusi dituztelako ezagutzen dituztenak); eta, bestean, “tratu onen agerpenak”.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Zer gertatu da?

Nola sentitu zarete barrura sartzeko ahaleginetan ibili zaretenok?

Eta zirkulua osatzen zenutenok?

Indarrez sartzen saiatu zarete?

Horrela egin behar zenutela esan dizuete inork?

Ba al zegoen horrenbesteko "indarkeriarik" gabe sartzeko modurik?

Zer aukera bururatzen zaizkizue?

Beren proposamenak azaldu ondoren, beste aukera hauek ere adieraz diezazkiekegu:

- 1- Zirkulua osatzen dutenekin hitz egin, sartzten utz diezaguten.
- 2- Tonu atsegina erabiliz, sartzten utz diezadaten eskatu.
- 3- Mesedez eskatu. Barrura sartu nahi dudala azaldu, nire alde egin dezaten saiatuz.
- 4- Zirkulua osatzen duten ikasleen taldeak sartzten uztea erabaki du. Zertarako babestu beren burua, inork eraso egiten diela sentitzen ez badute?
- 5- ...

ONDORIOAK

Horrelako egoeretan, beste hainbat gatazkatan bezala, jokabide lehiakorrek eta indarkeria erabili ohi ditugu guk nahi duguna lortzeko, bai saretik kanpo eta bai sare barruan. Indarkeriazko jokabideak alde batera utzi eta beste aukera batzuk bilatzeko eseri eta elkarrizketan hastea zaila egiten zaigu.

Indarkeriazko jokabideak erabiltzeak neke emozional handiagoa sortzen digu, eta harreman gatazkatsua dugun pertsonetik harremanak kaltetzen ditu.

Ez ditugu indarkeriazko jarrerak erabiltzen, gizakiok indarkeria berezkoa dugulako (hori ez da egia), horrela ikasi dugulako baizik.

Ez digute erakutsi jarrera horiek modu eraikitzailean lantzen; horretarako, gatazkari buruz barneratuta dugun ideia hau baztertu behar dugu: bi alderen arteko borroka, non biak besteari irabazten saiatuko diren.

Teknologia berrien testuinguruan jokabide horiek aztertzea ezinbestekoa da, gure ekintzak eta gure erreakzioak oso bizkor zabaltzen baitira, eta oso jendetza zabalaren aurrean gainera; horregatik, ezinbestekoa da gogoeta egitea eta, erabaki aurretik, gure ekintzen ondorioak neurtzea.

ERANSKINAK

JAZARPEN ETA TRATU TXARREN AGERPENA	TRATU ONEN AGERPENA

// ZERGATIK NIRI?

DBH I

HELBURUAK

- Sarean jazarpena jasateak dakarrenari buruz kontzientzia hartzea.
- Egoera horiek ezagutzea eta parte hartzen dutenentzat dituzten ondorio larriez jabetzea.
- Sarearen bidez tratu txarrak eta jazarpena jasateak sortzen dituen sentimenduak ezagutzea.
- Egoera horiek biktimarengan sortzen dituzten kalteei buruz ikasleak kontzientziatzea.

DENBORA

- 30 minutu

TESTUINGURU TEORIKOA

Zenbaitetan, zerbait gertatzen ari dela esaten ez badigute, ez gara ohartu ere egiten. Horixe landu nahi dugu jarduera honetan. Sentimenduetan heztea gure burua heztea da, eta eragina du horrek gure ekintzetan. Pertsona bat kalte egiten ari dela jabetzen bada eta kontziente bada, beharbada ez du gehiago egingo, edo egin aurretik bi aldiz pentsatuko du.

Soilik tratu txarren edo jazarpen-kasuetan inplikaturako ikasleek ezagutzen dituzte egoera horiek eragin ditzaketen sentimenduak. Jarduera honen bidez, ikasleek abusuak zer-nolako kalteak eta sentimendu negatiboak eragiten dituen ulertzea nahi dugu.

Ziberbullying-aren komunikazioen eta motibazioen jatorria eta bullying-arenak desberdinak direla esan daiteke.

**Bullying-a: berdinaren arteko tratu txarrak; pertsona batek edo talde batek, erasoka eta benetan edo fikzioan duen boterea gehiegikeriaz erabiliz, kide bati behin eta berriro eta modu iraunkor batean mina emateko asmoz zuzentzen dizkion jokabide fisikoan edota hitzezko jokabideen multzoa (Olweus, 1993).*

Ziberbullying-a pertsona gazte bati mehatxu egiten diotenean, pertsona gazte hori xaxatu, umiliatu edo mintzen dutenean gertatzen da, edo beste gazte baten jopuntu bihurtzen denean, Internet, sakelako telefono edo beste komunikazio-teknologia telematikoko batzuen bidez.

Ez du soilik une batean gertatu behar, eta bi aldeetan adingabeek egon behar dute; jazarpenaren protagonista pertsona helduak direnean, ez da izango ziberbullying-a.

Bide telematikoa gehiegikeriak egitea sustatzen duten faktoreak dira anonimotasuna eta zigorgabetasun-sentipena.

JARDUERAREN GARAPENA

Youtuben 3 istorio desberdin ikusi ahal izango dira.

Banakako lana

Istorioko guztiak ikusi ahal izango dira. Ondoren, istorioei zenbakiak esleituko dizkiegu: pertsona bakoitzak, banaka, istorio bat ikusiko du, eta bideo hori ikusteak zer sentimendu sorrarazi dizkion idatziko du azpian, erasotzailearen eta biktimaren sentimenduak bereizita.

Talde-lana

Taldeka jarrita, sentimenduen zerrenda bateratuko dute.

Ondoren, talde bakoitzak bideo bateko pertsonaia bat hautatu behar du, euren arreta pertsonaia horri zuzentzeko. Hautatu dutenean, taldeak erabaki behar du zer laguntza mota behar duen pertsonaia horrek, eta behar duen laguntza nola eman diezaioketen aztertuko dute. Hainbat estrategia erabil ditzakete: gutun bat idatzi, elkarriketa bat egin edo haren lagun izateko prest agertu.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Bideoak ikusi ondoren, talde handian batuko dira. Irakasleak gidatuko du saioa, honako galdera hauetan oinarrituta:

Badakizue zer den ziberbullying-a? Eta bullying-a?

Inoiz entzun duzue?

Zuen ustez, halakorik gertatzen da zuen ikasgelan edo ikastetxean? Zer iritzi duzue horri buruz?

Jazarpen larria iruditzen zaizue, edo ez da hainbesterako? Zuen ustez, biktimari kalterik eragin diezaioke?

Ziberbullying-a jasango bazenute, pertsona heldu bati esango zeniokete? Inori ezer esango ez bazeniote, egoerak hobera edo okerrera egingo luke?

Pertsona bat Internet bidez jazarpena jasaten ari bada, nola geldi liteke hori?

Zailtasuna izan duzue pertsonaien tokian jartzeko? Erraza izan al da sentimenduak adieraztea? Zergatik?

Zer pertsonaia aukeratu duzue? Zergatik? Zuen ustez, pertsonaia horiei lagunduz gero berorien sentimenduak aldatu egingo dira?

Horrelako egoera bat biziko bazenute, zer egin dezakezue?

ONDORIOAK

Internet sortu zenetik, indarkeria behin eta berriz errepikatzen den gune bat ireki da, eta modu, adierazpen eta neurri berriak hartu ditu aldi berean.

Zenbait kasutan, zapalkuntzarako eta bazterketarako modu berriak sortu direla ikusi dugu, eta, beste batzuetan, sarearen erabileraren bidez indarkeria erabiltzeko moduak areagotu egin direla hauteman dugu.

Eragin-trukearen ikuspegitik, Internet bidezko harremanak azkar mugitzeko aukera ematen du, harreman-sareak berehala sor daitezke, informazioa biderka daiteke, eta baita laguntza, elkartasuna etab. ere, baina, horrez gain, nazio mailako nahiz nazioarteko legediek behar bezala araututa ez dituzten delituak egiteko baliabide ere bada. Interneteko delituen artean, besteak beste, honako hauek aipa daitezke: grooming-a (adingabeen aurkako sexu-jazarpena sarean) sexting-a (sexu-edukia duten irudiak, argazkiak edo bideoak bidaltzea sakelako telefonoaren bidez), haur-pornografia, delitu informatikoak, iruzurra, sektak, **ziberbullying** -a (parekoen arteko jazarpena sarean)...

Ikastetxeetako harremanean eta bizikidetzan, heldutasun maila eta gure zirrarak eta sentimenduak bideratzeko eta kontrolatzeko moduak faktore erabakigarriak izango dira. Ez dira modu berean arautuko gatazka pertsonalak bulkadek bultzatuta jokatzen badugu edo zirraren arazoak bilatzen saiatzen bagara, arazoari aurre egiten badiogu edo arazoaren aurrean "ihes" egiten badugu, egoera horretatik edozein bidetatik irteteko ahaleginean.

Horrela, erantzun beharreko hainbat galdera sortzen dira: gure ikasleek zer heldutasun maila duten jakin behar dugu.

Esaten dena egia bada, hau da, zirraren eta sentimenduen heldutasun maila onak eskolako arrakasta sustatzen badu (eta gero lanean eta bizitzan ere bai), *hezi beharreko arloa* dela onartu beharko dugu. Hau da, sentimenduak ikasleen eta irakasleen nortasunaren zati bat badira horien zeregin osoan, irakasteaz edo ikasteaz hitz egiten dugunean ere kontuan izan beharko ditugu.

Laburbilduz, garapen eta *heldutasun emozionala*, alde batetik, harreman onak ezartzeko eta elkarrekin bizitzeko *baldintza* da, bai eta ikaskuntza-prozesuari modu egokian aurre egiteko ere, eta, bestetik, *hezkuntza-helburu* ere bada, etorkizuneko herritarrei begira.

// eranskinak - BIDEOAK

DBH I


1. ISTORIA

<http://www.youtube.com/watch?v=9bgdOuBn4Q4>



2. ISTORIA

<http://www.youtube.com/watch?v=DwKgg35YbC4>



3. ISTORIA

<http://www.youtube.com/watch?v=chISwcAra-E>



ARIKETARAKO FITXA:

NORBERAREN SENTIMENDUAK	BIKTIMAREN SENTIMENDUAK	ZAPALTAILEAREN / ZIBERZAPALTAILEAREN SENTIMENDUAK
NOLA LAGUNDUKO ZENIOKE BIKTIMARI?		

// KONPROMISOA

DBH I

HELBURUAK

- Programan eskuratutako ezagutzak ikus-entzunezko batean txertatzea.
- Teknologia berriak modu egokian erabiltzeko konpromisoa islatzea.
- Sorkuntza-lan baten bitartez parekoen artean teknologia berrien erabilera arduratsua hedatzea.

DENBORA

- 90 minutu

MATERIALA

- Pixton programa (azalpena eranskinean).

TESTUINGURU TEORIKOA

Ezaguerak barneratu ondoren, arriskuei eta hartu beharreko prebentzio-neurriei buruz gogoeta egin ondoren eta teknologia berriak desegoki eta asmo txarrez erabiltzeak eragin ditzakeen indarkeriazko egoerez jabetu eta gero, garrantzi handia du beroriek arduraz erabiltzeko konpromisoa hartzea.

JARDUERAREN GARAPENA

Taldeetan bilduko dira, eta sarearen erabilera desegokiarekin lotutako arazo bat islatzen duen istorio bat adostu beharko dute.

Istoria pentsatu ondoren, Pixton programa erabiliko dute berori garatzeko (sareko programa bat da, komikiak egiteko balio duena).

Istorio guztiek, lantzen duten arazoa edozein motatakoa delarik ere, honako eredu honi jarraituko diote:

- a. Pertsona batek ekintza desegoki bat egiten du sare sozialen bidez, edo hirugarrenek egiten duten zerbaiten biktima da.
- b. Arazoa larriagotu egiten da.
- c. Biktimak laguntza eskatzen du.
- d. Guztien artean irtenbidea bilatzen diote arazoari.
- e. Teknologia berriei buruzko mezu positiboa, beroriek arduraz erabiltzeko deia.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Ikasleek landutako komiki guztiak proiektatuko dira, eta, horren ondoren, amaierako gogoeta egingo da.

Istoria pentsatzea kostatu egin zaizue?

Zuen ustez, beste batzuentzat lagungarri izan daitezke zuek egindako lanak, segurtasun handiagoz nabigatzeko?

Ezer ikasi duzue programaren bidez?

Zuen iritziz, hemendik aurrera modu desberdinean gerturatuko zarete teknologia berrietara?

Nola?

Zuen inguruan eraso edo jazarpen baten berri izaten baduzue, jarrera bera izango duzue?

ONDORIOAK

Jarduera honen bidez, ikasleek orain arte ikasitakoa hobeto barneratzeaz gain, programa garatzeko orduan landu dituzten alderdi garrantzitsuenak erakutsi ahal izango dizkiete gainerako ikasleei, egin dituzten lanen bidez; mezua parekoengandik iristen denean, arreta handiagoa jartzen baitiote mezu horri, eta sakonago barneratzen baitituzte nabigazio segurua bermatzeko bete beharreko jarraibideak.

// anexos - PIXTON PROGRAMA

DBH I


<http://www.pixton.com/es/>



Sakatu “Iniciar sesión” aukera



Izena: egonline I 4
Pasahitza: egonline



Sakatu “Crear un cómic” aukera



➤ **Aukeratu formatu bat. "Chiste Dominical" aukeran garapen handiagoa egin daiteke.**



➤ **Aukeratu antolamendu bat.**




➤ **Sakatu binetaren gainean, eta, ezkerreko menua erabilita, txertatu pertsonaiak, bunbuiloak, osagarriak edo atzealdeko paisaiak.**



➤ **Sakatu pertsonaiaren gainean, eta, ezkerreko menuan, aukeratu pertsonaiaren kokapena, aurpegiera eta kolorea.**




Sakatu pertsonaiaren gainean, eta, berde dagoenean, haren gorputz-adarrak eta jarrera mugitu ahal izango dituzu.



Bineta bakoitza bukatutakoan, sakatu berorren gainean, eta, beheko menuan, sakatu “guardar”.



Komikia amaitutakoan, sakatu “publicar”.



Egindako komikiak ikusteko, sakatu “Yo”- “Mis Comics”.



JARDUERAK

DBH 2

// AURKEZPENA-EGONLINE BIDEOA	57
// FRANKESTEIN BIRTUALA	61
// ZATAR-PAPEREZKO PETOA	68
// GIZA WHATSAPP-A	70
// ALBISTEAK SORTZEN	72
// NON DAUDE ARRISKUAK?	74
// ZIRKULUA	79
// ARAZO BAT DAUKAGU-ROLE PLAYING	82
// KONPROMISOA	85

egon line

// AURKEZPENA-EGONLINE BIDEOA

DBH 2

HELBURUAK

- Programa aurkeztea.
- Gaia ezagutzen hastea.
- Ikasleek teknologia berrien eta sare sozialen munduari buruz duten ikuspegia aztertzea.

DENBORA

- 40 minutu

MATERIALA

- egON LINE bideoa.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berriek eta sare sozialek gero eta presentzia handiagoa dute nerabeen artean. Beren komunikaziorako oinarrizko tresna bihurtu dira, eta egunaren zati handi batean erabiltzen dituzte. Smartphoneen sarrera zabaldu denetik, erabilera asko handitu da, eta egunean zehar konektatuta daude ia beti. Fitxategiak, argazkiak, testu-mezuak, ahots-mezuak eta horrelakoak bidaltzeko erabiltzen dituzte nerabeek Smartphoneak, eta askotariko programak eta sare sozialak baliatzen dituzte horretarako: Whatsapp, Telegram, Tuenti, Twitter, Snapchat...

Informazio-truke hori modu eraikitzaile batean egiten dute.

- Argazkiak bidali, edota egiteko dituzten zereginetara buruzko informazioa bildu lankidetzan jarduteko.

Baina, beste askotan, arduragabekeriak ere erabiltzen dituzte:

- Egokiak ez diren argazkiak bidali, hirugarrenei buruzko informazioa bidali haien baimenik gabe, iraindu, mehatxu egin edo hirugarrenei jazarri...

JARDUERAREN GARAPENA

Programa aurkeztu ondoren, egON LINE bideoa ikusiko da. Eta, bideoko protagonistek beren egunerokoan teknologia berriak erabiltzen dituztenean, erabilera horrekin lotutako alderdiei erreparatzeko eskatuko diegu, ekintza positiboak eta ekintza arriskutsuei arreta jartzeko.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Bideoa ikusi ondoren, azterketa hau egingo da ikasleekin.

Bideoko protagonistek sare sozialez egiten duten erabilerarekin bat egiten duzue?

Ekintza arriskutsurik hauteman duzue?

Sare sozialak modu desegokian erabiliz gero arazorik izan dezakegu, zuen ustez?

Izan duzue inoiz arazorik horrelakoak erabiltzerakoan?

Badakizue ikastetxean edo zuen lagunartean gertatu den horrelakorik? Zer gertatu da?

Sare sozialen erabilera desegokiaren ondorioz sortu den arazo bat larria izan daiteke, zuen ustez?

ONDORIOAK

Teknologia berriak eta sare sozialak arduragabekeriak erabiltzeak askotariko arazoak sortu ditu nerabeen artean. Mundu birtualean, izugarri azkar zabaltzen dira gure ekintzak; ekintza horiek jende askorekin partekatzen dira, eta, horrez gain, sarean garatzen den ekintza bakoitzak ezabatu ezin den aztarna bat uzten du.

Horregatik, ezinbestekoa da ikasleek beren egunez egunekoan teknologia berrieekin duten harremana aztertzea eta, horrez gain, ezagutzen ez dituztelako edo arduragabekeriak jokatzen dutelako beren burua arriskuan jartzea eragin dezaketen ekintzak hautematea. Askotan, nerabe horiek ez dira konturatzen beren ekintzek zer-nolako arriskua dakarten. Beraz, funtsezkoa da gure nabigazio-ohiturak zorrotz aztertzea eta gure jokabidean zalantza-koak izan daitezkeen guneak identifikatzen saiatzea.

// eranskinak - EGON LINE BIDEOA

DBH 2

<http://www.youtube.com/watch?v=RZYUUYgkENQ>



KORTXO BIRTUALA

HELBURUAK

- Gure datuak nola zabaltzen ditugun balioestea.
- Gure barneko kontuak zein espazio eta forotan partekatzen ditugun balioestea.
- Sarean gure burua arriskuan jartzeak dituen ondorioei buruz gogoeta egitea.

DENBORA

- 40 minutu

MATERIALA

- Zatar-papera.
- Post-itak.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Fitxategiak azkar eta erraz partekatzeko gune handi bat sorrarazi dute sare sozialek. Gero eta tresna gehiago ditugu argazkiak, testuak, bideoak... trukatzeko.

Ikuspegi praktikotik, komunikazioan izugarritzko aurrerapausoa eman dugula esan dezakegu; baina, aldi berean, komunikaziorako eta fitxategien trukerako bide horiek erabiltzaileen artean dena partekatzeko ohitura ekarri dute, hau da, edukia bahetu gabe partekatzeko joera sorrarazi dute. Arazo bat ekarri du horrek, eta ezinbestekoa da horretaz gogoeta egitea, informazioa trukatzeko ohitura horrek askotariko arazoak eragin baitiezazkioke erabiltzaileari, igortzen duen edukiaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da zer partekatuko dugun eta norekin egingo dugun gogoeta egitea. Hau da, hausnartzea eta sareko intimitate kontzeptua eraikitzea.

JARDUERAREN GARAPENA

Arbelean edo zatar-paperean, hiru atal bereiziko dira.

Lagun minak Ezagunak Ezezagunak

Ikasle bakoitzak post-itak izango ditu, eta honako kontzeptu hauek agertuko dira berorietan:

Argazki pertsonalak - taldeko argazkiak - bideo pertsonalak - taldeko bideoak - informazio pertsonala - hirugarrenei buruzko informazioa

Kortxoko atal bakoitzean post-itak itsasten joateko eskatuko zaie ikasleei, bakoitzean aipatzen diren fitxategi motak norekin partekatzen dituzten kontuan hartuta. Atal batean, bitan edo hiruretan ere ezar daitezke, hala egiten badute. Horren ondoren, atal bakoitzean partekatzen ditugun fitxategi motak zenbatuko dira.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Post-it guztiak kortxoan ezarri ondoren, honako azterketa hau egingo da ikasleekin:

Zuen ustez, arriskutsua izan daiteke fitxategi mota batzuk pertsona batzuekin partekatzea, haiengan konfiantza nahikorik ez izan arren?

Uste duzue arazoren bat izan dezakegula hirugarrenen argazkiak eta datuak haien baimenik gabe beste batzuekin partekatzen baditugu?

Fitxategi bat partekatzen duzuenean, kontuan hartzen dituzue hartzaila izango diren pertsona guztiak?

Konturatzen gara sarean partekatzen dugun fitxategi bat galdutako fitxategia dela eta sarean iraungo duela?

ONDORIOAK

“Intimoa” edo “barrukoa” dena distorsionatuta ikusten dugu oro har sarean. Saretik kanpo oso kontuan hartzen dugu zer partekatzen dugun besteekin; baina, sarean, irizpide hori galdu egiten dugu, eta pertsonala dena zabaldu egiten dugu, pertsona gehiegirekin partekatzen baitugu.

Ekintza arriskutsua izan daiteke hori; alde batetik, oso kontuan hartu behar dugu argazki bat, bideo bat edo iruzkin desegoki bat igotzen dugunean eta sarean zabaltzen dugunean, han geldituko dela betiko, eta horrek zer adierazten duen jabetu behar dugu; eta, bestetik, “lagun” gisa erantsi ditugun pertsonen fitxategi horri zer erabilera eman diezaioketen jabetu behar dugu, funtsean, ez baititugu ondo ezagutzen.

Horrez gain, hirugarrenen datuak, argazkiak edo bideoak nola erabiltzen ditugun ere oso aintzat hartu behar dugu, horrelako fitxategiak erabiltzen ditugunean askotan delitu bat egiten ari garela jakin behar baitugu.

Horregatik, garrantzi handia du zer fitxategi mota partekatzen ditugun jabetzeak eta horri buruz gogoeta egiteak; eta berorien hartzailak aukeratzeko irizpideez ere gogoeta egin behar dugu. Sarean, klik desegoki batek gure buruarentzat edo hirugarrenentzat kaltegarria izan daitekeen hutsegite bat adieraz dezake.

// FRANKESTEIN BIRTUALA

DBH 2

HELBURUAK

- Sareak eskaintzen dizkigun tresnak aztertzea.
- Sareak eskaintzen dizkigun tresnen alderdi garrantzitsuenak identifikatzea.
- Sarea eraikitzeke eta aukerak aurkitzeke gune gisa identifikatzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Capzles programa, eranskinean azaltzen dena.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berrietatik ondorioztatutako arriskuen aurreko sentsibilizazioa eta prebentzioa garrantzitsua da, ikasleei beren buruak babesteko tresnak eta informazio nahikoa emateko, baina ez ditugu kriminalizatu behar; aitzitik, aukerak, laguntzak eta garapena eskuratzeko unibertso gisa aurkeztu behar ditugu.

Ikuspegi hori lagungarria izango da ikasleentzat nahiz horien hezkuntza-inguruarentzat, hezkuntza-prozesuaren barnean eta ikasgelan nahiz etxean normaltasunez txerta ditzaten. Hau da, ez ditugu etsaitzat hartu behar, laguntzailetzat baizik.

Teknologia berrien abantailak eta aukerak arriskuen gainetik nabarmentzen baditugu, beroriek erabiltzeko orduan bide segurua goa sustatuko eta erakutsiko dugu.

JARDUERAREN GARAPENA

“Capzles” programa erabiliz, ikasleak ekintzak eta tresnak bi aldi desberdinetan kokatuko ditu; 1990-1995 aldian eta 2010-2015 aldian. Irudien eta testuen laguntzarekin eta Interneten informazioa bilatuz, ekintza bakoitzean erabilitako tresnak kokatu beharko ditu garai bakoitzean.

Adib. Ekintzak:

Norbaitekin hitz egin, testu bat bidali, musika entzun, film bat ikusi, zerbait saldu edo erosi, argazki bat erakutsi, mapa batean zerbait begiratu, lana bilatu, txartel bat erosi...

Adib. Tresnak:

1990-1995: telefono finkoa, posta, argazki-albuma, zinema/telebista, egunkarietako iragarkiak...

2010-2015: Skype/sakelako telefonoa, posta elektronikoa, Instagram, sareko filmak, LinkedIn....

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek tresnak aurkeztu ondoren, honako azterketa hau egingo dugu ikasleekin batera:

Teknologia berriek zer erataria lagundu digute gure egunez egunekoan?

Denbora aurrezteko modua eman digute soilik?

Zein dira, zuen ustez, teknologia berriek ekarri dizkiguten aurrerapen esanguratsuenak?

Nola lagundu diote teknologia berriek gizarteari?

Eta nola laguntzen digute eskolan?

Eskolan txerta genitzakeen tresnak bururatzeko zaizkizue?

ONDORIOAK

Ikasleek egunero erabiltzen dituzte teknologia berriak, komunikatzeko, fitxategiak bidaltzeko, informazioa bilatzeko, jolasteko, jendea ezagutzeko. Baina, aldi berean, errealitate honetan jaio eta hazi dira, eta, askotan, ez dituzte nahikoa balioesten erabiltzen dituzten tresnak.


Tresnen balioespena estuki lotuta dago tresna horiek erabiltzen ditugun moduarekin. Hezitzaileak garen heinean, sareak hezkuntzaren ikuspegitik eskaintzen dituen abantailak ikusarazi behar dizkiegu ikasleei; azken batean, sarean hezteak duen garrantzia adierazi behar diegu.

Sarea aisialdirako edo besteekin harremanak ezartzeko gune moduan ikusteaz gain, eraikitze gune moduan ikusten duen ikasleak gehiago errespetatuko ditu tresna eta ekintzak, eta, beraz, modu arduratsuagoan eta seguruagoan egingo du bidea.

// eranskinak - CAPZLES PROGRAMA

DBH 2


<http://www.capzles.com/>



Sakatu “Login“ aukeraren gainean.




Idatzi izena eta gakoa
Screen Name: egonline
Password: egonline




Sortzen hasteko, sakatu “Create” eta “New Capzle”




Konfiguratu tresna honen pribatutasuna, eta aukeratu: Nobody





Jarri izenburua.




Igo argazkiak ordenagailuko fitxategitik.




Igotako argazkien gainean sakatu, eta denboran kokatu.



Argazki bakoitzak izenburu bat izan dezake, eta tresnarekin egin daitekeena deskriba daiteke.



Amaitzen dutenean, sakatu "I'm Finished".



**Egindako lanak ikusteko,
aukeratu “My Capzles”.**

// SIMULATUTAKO ELKARRIZKETA

DBH 2

HELBURUAK

- Teknologia berriak erabiltzen ditugunean egiten ditugun ekintzak aztertzea.
- Teknologia berriak erabiltzean arriskutsuak eta indarkeriazkoak izan daitezkeen portaerak identifikatzea.

DENBORA

- 40 minutu

MATERIALA

- Zatar-papera.
- Kartoi mehea.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Begien bistakoa bada ere, behar-beharrezkoa da argi uztea teknologia berriak ez direla berorien bidez sortzen diren arazo edota arriskuen errudunak; tresna horretaz egiten dugun erabileraren eta dugun informazioaren ondorio dira arrisku horiek. Nerabeek sare sozialak erabiltzen dituztenean, arriskutsuena egiten dituzten “lagunen” kopuru handia da; hau da, lagun gisa eranstean dituzten pertsonen kopuru izugarria, informazio pertsonala partekatzen baitute beroriekin askotan.

Whatsapp-aren erabilera zabalduz geroztik, errealitate hori aldatu egin da. Tresna horren bidez, beren afektuen unibertsoa oso modu indartsuan biltzen duten taldeak sortzen dituzte (ikasgelakoen talde, maila berekoen taldea, lagun taldea, entrenamendukoena...); beraiengandik gertuen dauden parekoek osatutako taldeak, etengabe konektatuta daudenak; berorietan, ekintza desegoki batek arriskua adieraz dezake biktimarentzat.

Horregatik, ezinbestekoa da talde horien bidez zer ekintza mota gauzatzen ditugun aztertzea eta itxura batean gaitzik ez duen ekintza batek hirugarren bati edota norberari kaltea ekar diezaiokeela jabetzea.

JARDUERAREN GARAPENA

Hiru talde bereiziko dira ikastaldean, eta talde bakoitzak Whatsapp-eko elkarrizketen ohiko pantaila marraztuko du zatar-paperean. Gero, kartoi mehea erabiliz, testu-bunbuiloak ebakiko dituzte; hainbat gairi buruz esaten direnak idatziko dituzte berorietan, eta zatar-paperean itsatsiko dituzte. Erabil daitezkeen hizketagaiak:

- *Ikasgelako ikasle batzuk hondartzan izan dira, eta hondartzara joan ziren lagun argazkiak bidali dizkie taldeko kide batek gainerako ikaskide guztiei, argazkietako jendeari baimenik eskatu gabe. Gainerakoak argazkietako jendeari buruzko iritziak botatzen hasi dira.*

- *Bi taldekide taldeko beste bat kritikatzeko hasi dira, eta informazio pertsonala zabaldu dute.*
- *Taldekide batek oso txukuna ez den argazki pertsonal bat partekatu du taldean. Mesedez ezabatzeko eskatu du, baina berandu da jada.*

1. adib.:

1. ikaslea: *Atzo, hondartzan izan ginen.*
2. ikaslea: *Bai, egia esan, oso ondo pasatu genuen.*
3. ikaslea: *Hemen dituzue argazki batzuk.*
4. ikaslea: *Ederki pasatu zenuten, bai. Ene, ederki gizen da x!*
5. ikaslea: *Bai, eta zer gaizki ematen dion bainujantziak.*
6. ikaslea: *Ederra kontua! Argazki hori bidaltzeko baimenik ez dit eskatu niri inork.*

.....

2. adib.:

1. ikaslea: *X ikasleak beti oinetako berak ekartzen ditu eskolara.*
2. ikaslea: *Egia da... Ez dabilta nonbait oso ondo diruz etxean.*
1. ikaslea: *Gurasoak langabezia dituela..., badakigu udalaren harrera-etxe batean bizi direla, X kalekoan... Lehengokoan egin nion argazkia bidaltzen dizuet, etxean sartzen agertzen da...*
2. ikaslea: *Telefonotarako badaukate, bada...*

.....

3. adib.:

1. ikaslea: *Atzo atera nuen argazkia doazkizue; nire lehengusu batek makillatu ninduen, makillatzailea da eta...*
1. ikaslea: *Kristo, hara zer argazkiak...*
3. ikaslea: *Horixe esango nuke nik ere, jada partekatu ditut talde guztietan.*
1. ikaslea: *Aizue... Ez pasatu, ez zabaldu guztiei...*
4. ikaslea: *Uste dut jada berandu dela...*

.....

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek Whatsapp-eko elkarrizketak amaitzen dituztenean, egindakoa bateratuko dute, eta azterketa hauxe egingo da ikasleekin.

Elkarrizketetan sumatu duzue taldekideren batentzat mingarri gerta daitekeen ezer?

Konfiantzazko harreman berak ditugu gure taldeetako kide guztiekin?

Saretik kanpo, ausartuko ginatke ikasgelan erakusten edo partekatzen Whatsapp-taldean bidez partekatzen dugun informazioa?

Hirugarrenen datuak eta argazkiak haien baimenik gabe taldean partekatzeak ondorioz ekar dezake, zuen ustez?

ONDORIOAK

Sareko tresna guztiak bezala, Whatsapp-a ere tresna bat da, eta, ondo erabiltzen badugu, aukera asko emango dizkigu. Nerabeen artean Smartphoneak horrenbeste sartu eta zabaldu direnez, gero eta presentzia handiagoa dute Whatsapp-etan ikasgelako taldeek, eta ikasgelako ia kide guztiek parte hartzen duten talde horietan. Talde horien bidez, taldekideak elkarrekin konektatuta daude etengabe, eta, normalean, eskolako informazioa trukatzeko, hitzorduak egiteko edo eskola-ingurunearekin lotutako fitxategi interesgarriak elkarri bidaltzeko erabiltzen dute.

Baina, beste aplikazio mota batzuekin gertatzen denaren ildotik, talde horiek beste hainbat gauzatarako ere erabiltzen dituzte, taldeko argazkiak, argazki pertsonalak edota hirugarrenei buruzko datuak bidaltzeko, adibidez, edo hirugarrenak kritikatzeko, etab. Jarrera horiek barnekoa edo norberarena dena erlatibizatzen eramango gaituzte berriro ere.

Pantaila baten atzean egoteak eta partekatzen den informazioaren edukia gutxiesteak tresna horren testuingurutik kanpo inoiz egingo ez litzaketenak egitera bultzatzen dituzte. Hurbilenekoan afektuak hurbilenekoak biltzen ditu tresna horrek, eta, beraz, babesik gabe uzten da biktima.

Horrelako tresnek eskaintzen dituzten alderdi interesgarrienak sustatu behar ditugula nabarmenduko dugu berriro ere, tresna horiek eskaintzen duten harremanen unibertso berrian hezi behar baititugu ikasleak.

// ZATAR-PAPEREZKO PETOA

DBH 2

HELBURUAK

- Sarean zenbat informazio eta zer motatakoa jartzen dugun aztertzea.
- Sare sozial berri batera nola hurbiltzen garen aztertzea.
- Pribatutasun-aukerak konfiguratzeko beharrei buruz gogoeta egitea.

DENBORA

- 40 minutu

MATERIALA

- Dina3 folioak.
- Post-itak.
- Arkatz markatzaileak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Web tresnak erabiltzeko orduan, ekintza batzuk kontrola daitezke, eta beste batzuk ez; hau da, zaila da hirugarren batek gutaz sarean esan dezakeena kontrolatzea; baina, aldi berean, guk kontatzen edo erakusten duguna konfiguratu dezakegu, eta noren aurrean erakusten dugun ere kontrola dezakegu.

are sozialek -Facebook, Tuenti, Twitter, Instagram...- gero eta pribatutasun-aukera hobeak dituzte; baina, horrelakoak konfiguratzeko orduan nerabeak hobeto badabilta ere, ehuneko handi batek ez dauka konfiguratu bere pribatutasuna sare sozialetan, aukera horiek ezagutzen ez dituelako edo informazio nahikorik ez duelako.

Segurtasunez nabigatu nahi badugu, ezinbestekoa da kode moral jakin batzuk onartzea, arriskurik ekarriko ez diguten jokabideak bermatzeko eta, aldi berean, hirugarrenak horrelako arriskueta ez bultzatzeko. Baina segurtasun horretara heltzeko lehen pausoa tresna bera konfiguratzeko eta pertsonalizatzeko da.

JARDUERAREN GARAPENA

Ikasle bakoitzak dina3 neurriko bi folio izango ditu; horietako batean, erabiltzen dituen sare sozialek idatziko ditu (lau gehienez), eta, sare sozial bakoitzaren ondoan, erantsita dituen pertsonen edo "lagunen" kopurua eta sare sozial bakoitzeko pribatutasun-konfigurazioa zehaztuko ditu.

Adib.

Tuenti-800 lagun

Nork ikus dezake nire profila: Mundu guztiak/lagunek/soilik lagun batzuek

Nork ikus dezake nire horma: Mundu guztiak/lagunek/soilik lagun batzuek

Nork ikus ditzake nire albumak: Mundu guztiak/lagunek/soilik lagun batzuek

Gero, parte-hartzaile bakoitzak folioa bular parean ezarriko du.

Horrez gain, kontzeptu hauek idatzita dituzten post-itak izango ditu itsatsita:

Argazkiak, datu pertsonalak, informazio pertsonala.

Parte-hartzaileek, gainerakoek daramaten informazioan ikusten dituzten sare sozialen kopurua, lagun kopurua eta irekitako pribatutasun-aukerak kontuan hartuta, post-itak idatziko dituzte lagunaren bizkarrean, dina3 neurriko folio bat itsatsita eramango baitute hor ere.

Azken emaitza oso grafikoa izango da; izan ere, argi eta garbi islatuko da berorietan munduarekin partekatzen ari diren datu eta argazkien kopurua, bizkarrean itsatsita daramatzaren post-iten arabera.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek dinamika amaitzen dutenean, egindakoa bateratuko dute, eta azterketa hauxe egingo da ikasleekin.

Bazenekiten tresnaren pribatutasuna konfiguratzeko aukera zenutela?

Aukera hori garrantzitsua iruditzen zaizue?

Tresnaren pribatutasuna ondo konfiguratuta edukitzeak zer arrisku saihestu ditzake?

Pribatutasun-aukerak konfiguratu gabe zenezkatenek zergatik ez zenituzten lehenago konfiguratu?

Pribatutasun-aukerak konfiguratzeko orduan, zein dira, zuen ustez, elementu garrantzitsuenak?

ONDORIOAK

Gero eta sare sozial gehiago ditugu, eta nahiko erregularra da horrelako aplikazioak definitzen dituzten ezaugarriekiko tresna berrien agerpena. Beraz, etengabe kontsumitzean eta uztean oinarritutako gurgil moduko bat eratu da: nerabeak profil bat irekitzen du sare sozial batean, utzi egiten du gero, profil bat irekitzen du beste sare sozial batean, utzi egiten du... Eta horrelaxe jarraitzen du etengabe.

Kontsumo-dinamika horretan, oso arreta gutxi jartzen die nerabeak tresnaren ezaugarriari, eta tresna erabili beharra eta berorren bidez komunikatzeko aukera nagusitzen zaio arreta horri. Oso ariketa arriskutsua da hori, tresna erabiltzeko "jarraibideak" irakurri aurretik trukatzeko baitituzte datu pertsonalak eta argazkiak edota erakusten baitute informazio pertsonala.

Horregatik, garrantzi handia du arlo horretan nerabea hezteak, tresna ondo ezagut dezan, konfiguratu dezan eta erakusten duen ororen irismena ezagut dezan; gero, erabiltzen duenean, segurtasun osoz egin dezan.

// GIZA WHATSAPP-A

DBH 2

HELBURUAK

- Whatsapp-a erabiltzen dugunean egiten ditugun ekintzak eta saretik kanpo egiten ditugunak konparatzea eta aztertzea.
- Whatsapp barnean eta kanpoan komunikatzeko gure moduan barneratutako kode moralak aztertzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Koaderno eta bolaluma.

TESTUINGURU TEORIKOA

Adingabeen eta teknologia berrien arteko eragin-trukean kode moralak barneratzea falta da, hau da, hainbat kontzeptu distorsionatu egin dira kanpoko errealitatek sarera igarotzerakoan eta sarearen barneko errealitatean bertan.

Zenbait kontzeptu, hala nola “lagunak”, “foroa” edo “intimitatea”, aldatu egin dira, eta adingabea egoera zaugarrian eta, askotan, arriskuan jartzen dute, horretarako asmorik ez izan arren. Gauza intimoak sarean erlatibizatzea (datu pertsonalak, informazio pertsonala, argazkiak) eta “adiskidetzat” ditugun 500 pertsonarekin partekatzea ekintza arriskutsua izan daiteke, eta adingabeari eta horren hezkuntza-erreferenteei zuzendutako sentsibilizazio-lana egin behar da. Kontzeptu horiek argitzea eta barneratzea izango da esparru honetan egin beharreko sentsibilizazio-lanaren oinarria.

JARDUERAREN GARAPENA

Dinamika hau Whatsapp-eko elkarrizketa bat berregin edo antzeztean datza. Ikastaldeko kide guztiak zirkulu handi batean eseriko dira, eta ikastalde osoa Whatsapp-talde bat izango da; eragile aktibo edo pasibo gisa parte har dezakete bertan.

Norbaitek iruzkin bat igo nahi duenean, zutik jarriko da, eta zirkuluaren erdira joko du. Iruzkina egiten duenean, eseri egingo da, eta erantzun nahi diona altxatuko da. Argazki eta bideo “imaginarioekin” osa ditzake bere iruzkinak, eta, horretarako, argazki edo bideo horietan agertzen dena deskribatu beharko du.

Erabil daitezkeen hizketagaiak:

- Festa batera joan ginen larunbatean.
- Igerilekuan izan ginen atzo.
- Zer egin duzue asteburuan?
- Azterketa batean kopiatzen harrapatu dute X.
- Ikusi duzue x filma?
- ...

Irakasleak edo boluntario batek jasoko ditu elkarrizketa guztiak.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taldeek dinamika amaitzen dutenean, elkarrizketa guztiak irakurriko dira, eta honako azterketa hau egingo da ikasleekin.

Talde erreal honetako elkarrizketan Whatsapp-eko elkarrizketan bezala jardun duzue?

Uste duzue Whatsapp-taldean ere elkarrizketa horrelakoxea izango zela?

Zer aldatuko zen?

Zergatik uste duzue elkarrizketa desberdina izango zela?

Sarearen barruan eta saretik kanpo modu berean jokatzeko dugu, zuen ustez?

Gure ekintzek ondorio berak dituzte sarearen barruan eta saretik kanpo?

ONDORIOAK

Ikasleen jokabidea erabat desberdina da sare barruan dabiltzanean eta saretik kanpo dabiltzanean. Saretik kanpo, oso ondo dakite zer dagoen gaizki eta zer ondo, kode moral horiek helarazi dizkieten hezkuntza-erreferenteak izan dituztelako aurrez. Alde batean eta bestean barruko kontutzat hartzen dutena neurtzeko eta kudeatzeko modu desberdinek zehazten dute jokabide hori.

Lehen distortsioa “lagun” kontzeptuarekin lotuta dago; saretik kanpo, laguntzat hartzen dituztenak aukeratzeko irizpidea askoz ere zorrotzagoa da. Beren gauzak, kezka, sekreturik barrukoenak nori kontatuko lizkioketen aztertuz gero, horrelako kontuak ez lizkiokete kontatuko lauzpabost laguni baino gehiagori; baina, sareko harremanetan, “lagunak” aukeratzeko irizpidea asko lausotzen da, eta kezagarria da hori. Adiskidetasunaren ikuspegi horretan, tartean behingo harremanak dituzten jendea, ia ezagutzen ez duten jendea edota ezezagunak daude.

Halako distortsio batez ikusten den beste kontu bat dakar horrek: “barrukotasuna”. Izan ere, saretik kanpo kontzeptu hori zorrotz zaindu arren eta “barruko” kontuak soilik lagun minenekin partekatu arren, argazkiak eta informazio pertsonala laguntzat hartzen dituzten pertsona guztiekin parteka ditzakete sarean, eta, sare sozialek sare handitzeko zer ahalmen duten ikusita, 300, 500 edota 800 lagun ere izan daitezke guztira.

Azken distortsioa ikusaraziko digu horrek, “foro” kontzeptuarena; hau da, informazio pertsonala partekatzen dugun pertsonen edo hirugarrenen kopurua. Saretik kanpo, oso ondo neurtzen dute informazio mota bat zenbat jendekin partekatuko duten; baina, sarearen barruan, ahaztu egiten dute edo irizpide hori ikusezin bihurtzen da, eta gai dira beren barruko kontuak jendearekin mugarik gabe partekatzeko.

Beraz, hezitzaile garen aldetik sarean adingabearen segurtasuna hobetzeko landu behar dugun helburu nagusietako bat sareko kode moral horiek helaraztea da.

// ALBISTEAK SORTZEN

DBH 2

HELBURUAK

- Teknologia berriekin lotutako inguru batean sortzen diren arazoak ezagutzea.
- Sarea modu desegokian erabiltzen dela adierazten duten adibideak partekatzea.
- Gure gizartean, sarearen bitartez gertatzen diren gehiegikeria- eta jazarpen-egoerak aztertzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Kartoi mehea.
- Orriak.
- Arkatz markatzaileak eta bolalumak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berrien erabilera desegokiaren ondorioz sortu diren arazoek kasuak oso presente daude ikasleen artean, horrelakoen biktima izan direlako edo oso gertuko kasuren bat ezagutzen dutelako.

Esparru horretan prebentzioa lantzeko orduan, garrantzi handia du horrelako kasuak aztertzeak eta gogoeta egiteak.

Ikasleek beren parekoak sufritu dituzten arazoez gogoeta egiten dutenean, enpatia maila handia sentitzen dute, eta horrek arazoaren izaerarekin eta beren ekintzen ondorioekin lotutako gaiak sakonkiago barneratzen laguntzen die.

JARDUERAREN GARAPENA

Lau talde osatuko dira ikastaldean, eta talde bakoitzak orriak eta kartoi mehea erabiliko ditu egunkari baten antzekoa egiteko; teknologia berrien erabilera desegokiarekin lotutako albiste bat asmatu eta idatzi beharko dute ondoren. Talde bakoitzari sareko indarkeriazko egoera hauetakoren bat esleituko zaio.

Ziberbullying: talde batek pertsona bati jazartzea denboraldi batez eta modu jarraituan, teknologia berrien bidez. Sexting: hirugarren baten argazkiak eta bideoak, eduki sexuala dutenak, bidaltzea eta trukitzea.

Phishing: iruzurrez beste pertsona baten identitatea hartuta aritzea, haren pasahitza lapurtuta.

Grooming: heldu batek gehiegikeriaz jokatzeko adingabe batekin edo adingabeari xantaia egitea, teknologia berrien bidez.

Hurbileko kasuetan oinarritu daitezke albisteak, baina fikziozko izenak erabiliko dira beti. Horrez gain, “ondo amaitzen den” kasu batez hitz egingo da albistean; hau da, albiste horretan, biktimak aipatu diren arrisku horiek sufrituko ditu, baina, inguruko jokabide zuzenari esker, egoerak okerrera ez egitea lortuko da.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Albiste guztiak irakurri ondoren, gogoeta egingo dute azaldu diren kasu horiez.

Zuen ustez, azaldu diren kasu horiek guztiak larriak dira, edo kontua ez da horrenbesterako?

Zuen iritziz, deskribatu diren arazoak kasu bakanak dira, edo dirudiena baino usuago gertatzen dira horrelakoak?

Idatzitako albisteetako kasu horiek zuen inguruan gerta daitezkeela uste duzue?

Zer egin daiteke, zuen ustez, adierazitako kasu horiek saihesteko?

Sareak eskaintzen dizkigun tresnak apur bat aldatu egin behar lirateke, zuen ustez, horrelako kasuak saihesteko?

ONDORIOAK

Teknologia berrien erabilera desegokiarekin lotutako arazoak eta horrelakoen biktimak ez daude horren urrun gugandik. Askok ezagutzen ditugu horrelako kasuak gure errealitate hurbilean. Beraz, erantzun egin behar genuke gure inguruko errealitatean horren presente dauden arazo horien aurrean.

Garrantzi handia du aurkeztu diren arazoaren izaeraren inguruan eta guk berorietan betetzen dugun tokiaren inguruan gogoeta egiteak. Arazoaren osagai diren elementuak berregiteak eta zehatz aztertzeak horrelakoak saihesteko edo irtenbidea bilatzeko tresnak eskuratzen lagun diezaguke.

// NON DAUDE ARRISKUAK?

DBH 2

HELBURUAK

- Sareko arriskuak hautematea.
- Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
- Teknologia berriak eta sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.

DENBORA

- 45 minutu

MATERIALA

- Eranskinean erantsitako bideoak.
- Eranskineko taula.
- Zatar-papera.

TESTUINGURU TEORIKOA

Hauek dira teknologia berriak gaizki erabiltzeagatik edo asmo txarrez erabiltzeagatik sor daitezkeen arrisku nagusiak edo orokortuenak:

Ziberbullying: talde batek pertsona bati jazartzea denboraldi batez eta modu jarraituan, teknologia berrien bidez.

Sexting: hirugarren baten argazkiak eta bideoak, eduki sexuala dutenak, bidaltzea eta trukitzea.

Phishing: iruzurrez beste pertsona baten identitatea hartuta aritzea, haren pasahitza lapurtuta.

Grooming: heldu batek gehiegikeriaz jokatzeko adingabe batekin edo adingabeari xantaia egitea, teknologia berrien bidez.

Arrisku ohikoenak:

12. Berehalako mezularitzaren edo SMSen bidezko jazarpena.
13. Pasahitza lapurtzea.
14. Hirugarren baten identitatea ordezkatzeko sortutako blogak.
15. Hirugarrenen informazioa, bideoak edota argazkiak haien baimenik gabe zabaltzeko blogak, orriak edota profilak.

16. Beste web batzuk (batzuetan, webguneak sortzen dira besteak iraintzeko, edo beste talde batzuei enbarazu egiteko web orriak diseinatzen dira).
17. E-mail bidez edo sakelako telefono bidez argazkiak bidaltzea.
18. Interneteko inkestak.
19. Erabiltzaile anitzeko jolasak.
20. Programa kaltegarriak igortzea.
21. Pornografia eta zabor-mezuak bidaltzea.
22. Besteen identitatea ordezkatzea.

JARDUERAREN GARAPENA

Eranskinean datozen bideoak ikusiko dira, eta, gero, taula osatuko dute banaka; bideoetan sumatu dituzten arriskuak eta arrisku horiek saihesteko hartu beharko liratekeen prebentzio-neurriak idatziko dituzte taula horretan. Gero, emandako erantzunak bateratuko dira, eta, zatar-paperean egingo den taula handi batean, arrisku eta prebentzio-neurri guztiak bilduko dira.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Taula handia osatu ondoren, gogoeta hau egingo dute guztiak batera:

- Bideoetan deskribatzen diren arriskuak ezagutzen zenituzten?
- Zer arrisku ezagutzen zenituzten?
- Horrelako egoerak gerta daitezkeela uste duzue?
- Deskribatutako arriskuak saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzen dituzue?
- Horrelako egoerak saihestu daitezkeela uste duzue?
- Sarean nabigatzeko modua aldatu behar dugu?
- Saretik kanpo eta sare barruan berdin jokatzeko dugu ezezagunekin?
- Saretik kanpo eta sare barruan informazio bera ematen dugu?
- Sare barruan eta saretik kanpo lagun berak ditugu?

ONDORIOAK

Askotan, sareko arriskuei aurre egiteko orduan, ekintza batzuei izenak jartzen dizkiegu, edo jartzen dizkiete, eta badirudi kudeatu ezin ditugun errealitateak direla. Hobeto kudeatzeko lagungarri gerta dakizkigukeen ekintza batzuk itzultzen saia gaitezke; azken finean, Internet eta Web 2.0 gunea besteekin bat egiteko edo ez egiteko tokiak dira, bizitza erreala bezalaxe. Arretaz jokatzeko eta berori eraikitzea beharrezko zeregina da hazteko, gatazka kudeatzea den bezalaxe.

Grooming-sufritu-ondoan egon
Ziberbullying – gehiegikeria – hitz egin
Sexting - jazarpena - gelditu
Phishing – iruzurra - pentsatu

Laburbilduz, ez dira ez arrisku berriak eta ez arazo berriak nerabeentzat, eta, hezitzaile garen neurrian, beroriei aurre egitea dagokigu guri. Betiko arazoak dira, baina inguru berri batean orain; eta, beraz, gure zeregina da, hezitzaile garen aldetik, ingurune hori gertuagotik ezagutzea eta ulertzea, gure ikasleei laguntzeko.

EKINTZA- ETA PREBENTZIO-NEURRIAK

IKASLEENTZAT

- Ez eman datu pertsonalik sarearen bidez.
- Kontuz sarean zer idazten dugun; irakurri berriro, bidali aurretik.
- Eraso egiten badigute:
 - Lasaitu eta gure ondoeza bideratu.
 - Ez erantzun ziberjazartzaileari.
 - Blokeatu gehiegikeriaz ari den ziberzapaltzailea.
 - Konfiantzazko pertsona heldu bati horren berri eman.
- Horrelako egoerak gerta ez daitezen lagun dezakezu zuk, horrelako jokabideekin jarrera kritikoa azalduz, txantxak asmo txarreko eraso bihur daitezen saihestuz, eta, bereziki, horrelakoren bat gertatzen ari dela ikustean parte ez hartuz baina ez isilduz.

IRAKASLEENTZAT

- Errealitatea aztertu eta ikastetxearen "argazkia" egin.
- Jarduketa-protokolo bat finkatu sareko gehiegikerien aurrean nola jokatu jakiteko.
- Teknologia berriak gertuagotik ezagutu.
- Hezkuntzaren esparruan teknologia berriak zeharkako izaeraz erabili.

GURASOENTZAT

- Interneti, berorren erabilera seguruari, eskaintzen dituen aukerei eta berorren arriskuei buruzko oinarritzko ikastaro bat egin.
- Seme-alabak gertutik zaindu, ziberbullying-a egin ez dezaten eta sufri ez dezaten.
- Arreta handiz jokatu edozein sintomaren aurrean, soseguz erantzun eta seme-alabekiko komunikazioan enpatiari eutsi.

// eranskinak - BIDEOAK

DBH 2

<http://www.youtube.com/watch?v=fHs6tMN6VA4>



<http://www.youtube.com/watch?v=E3Z6f-KIIQI>



<http://www.youtube.com/watch?v=qmnhclKgVg0>



ARIKETARAKO FITXA

SAREKO ARRISKUAK	
HAUTEMANDAKO ARRISKUAK	ARRISKUEI NOLA AURREA HARTU

// ZIRKULUA

DBH 2

HELBURUAK

- Gatazkei indarkeriaz aurre egiteko moduak barneratu ditugula onartzea.
- Sarean pertsona bati bidegabeki jazartzen edo erasotzen zaionean, egoera horren aurka egitea.
- Teknologia berrien esparruaren barnean egunero sortzen diren gatazkak arautzeko moduak aztertzea.

DENBORA

- 30 minutu

MATERIALA

- Eranskineko taula.

TESTUINGURU TEORIKOA

Teknologia berriak eta sare sozialak gaizki erabiltzeak sortzen dituzten gatazka eta arazoaren aurrean, sare sozialetatik kanpo sortzen diren arazo eta gatazken aurrean bezalaxe jokatzeko moduak ohituraz. Horregatik, gatazka aurrean guk zer-nolako jarrerak hartzen ditugun, nola erantzuten dugun eta horiei irtenbidea aurkitzen nola saiatzeko garen aztertzea garrantzitsua da oso, erabilgarria gertatuko baitzaigu teknologia berriekin edo sare sozialekin lotutako arazo bati aurre egiteko orduan.

JARDUERAREN GARAPENA

Lehen zatia:

Zirkulu bat osatuko dute, eta besoetatik elkarri lotuta egongo dira pertsona horiek zirkuluan. Hankak erdi irekita dituztela, oinaren alde bat ikaskideen oinaren kontra jarriko dute.

Lau pertsona zirkulutik kanpo kokatuko dira, eta honako agindu honi jarraitzeko esango zaie: "Zuen helburua gainerako ikaskideek osatu duten zirkuluaren barrura sartzea da".

Bigarren zatia:

Bigarren zatian eta taldeka, bi zerrenda bereizi egin behar dira; batean, ezagutzen dituzten “Jazarpen eta tratu txarren agerpenak” jasoko dituzte (beraiek jasan dituztelako edo ikaskideengan ikusi dituztelako ezagutzen dituztenak); eta, bestean, “tratu onen agerpenak”.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Zer gertatu da?

Nola sentitu zarete barrura sartzeko ahaleginetan ibili zaretenok?

Eta zirkulua osatzen zenutenok?

Indarrez sartzen saiatu zarete?

Horrela egin behar zenutela esan dizuete inork?

Ba al zegoen horrenbesteko “indarkeriarik” gabe sartzeko modurik?

Zer aukera bururatzen zaizkizue?

Beren proposamenak azaldu ondoren, beste aukera hauek ere adieraz diezazkiekegu:

- 1- Zirkulua osatzen dutenekin hitz egin, sartzen utz diezaguten.
- 2- Tonu atsegina erabiliz, sartzen utz diezadaten eskatu.
- 3- Mesedez eskatu. Barrura sartu nahi dudala azaldu, nire alde egin dezaten saiatuz.
- 4- Zirkulua osatzen duten ikasleen taldeak sartzen uztea erabaki du. Zertarako babestu beren burua, inork eraso egiten diela sentitzen ez badute?
- 5- ...

ONDORIOAK

Horrelako egoeretan, beste hainbat gatazkatan bezala, jokabide lehiakorrak eta indarkeria erabili ohi ditugu guk nahi duguna lortzeko, bai saretik kanpo eta bai sare barruan. Indarkeriazko jokabideak alde batera utzi eta beste aukera batzuk bilatzeko eseri eta elkarrizketan hastea zaila egiten zaigu.

Indarkeriazko jokabideak erabiltzeak neke emozional handiagoa sortzen digu, eta harreman gatazkatsua dugun pertsonetik harremanak kaltetzen ditu.

Ez ditugu indarkeriazko jarrerak erabiltzen, gizakiok indarkeria berezkoa dugulako (hori ez da egia), horrela ikasi dugulako baizik.

Ez digute erakutsi jarrera horiek modu eraikitzailean lantzen; horretarako, gatazkari buruz barneratuta dugun ideia hau baztertu behar dugu: bi alderen arteko borroka, non biak besteari irabazten saiatuko diren.

Teknologia berrien testuinguruan jokabide horiek aztertzea ezinbestekoa da, gure ekintzak eta gure erreakzioak oso bizkor zabaltzen baitira, eta oso jendetza zabalaren aurrean gainera; horregatik, ezinbestekoa da gogoeta egitea eta, erabaki aurretik, gure ekintzen ondorioak neurtzea.

// eranskinak - ARIKETARAKO FITXA

DBH 2

JAZARPEN ETA TRATU TXARREN AGERPENA	TRATU ONEN AGERPENA

// ARAZO BAT DAUKAGU-ROLE PLAYING

DBH 2

HELBURUAK

- Sare sozialen erabilera desegokitik ondorioztatutako arazoei aurrea hartzeko eta konponbidea bilatzeko bideak norberak aurkitzea.
- Sare sozialak erabiltzeko orduan hartzen diren hainbat jarrera ezagutzea.
- Enpatia lantzeko sareko egoera desegokien biktimen aurrea, rol-dinamika erabiliz horretarako.

DENBORA

- 50 minutu

MATERIALA

- Gatazken adibideak, eranskinean datozenak.
- Eranskinean datorren dinamikan antzeztu beharreko rolak.

TESTUINGURU TEORIKOA

Nerabeek askotariko jarrerekin eta asmoekin jotzen dute sare sozialetara, modu askotara erabiltzen dituzte. Ikasgelako lana eta pertsonen arteko komunikazioa errazteko eta aberasteko abantaila ugari ekarri dituzte teknologia berriek; baina, aldi berean, egia da asmo txarrez erabiliz gero oso “erabilgarriak” izan daitezkeela hirugarren bati kalte egiteko.

Pertsonak biltzeko sare sozialek duten gaitasunak, muntaketak egiteko dauden tresnek, ustez modu anonimoan jarduteko ematen duten aukerak, jazarpen eta erasoetarako eskaintzen dituzten bide ugariak..., horiek guztiek biktimarentzat benetan kaltegarri eta mingarria izan daitekeen agertokia osatzen dute.

Beraz, ezinbestekoa da jazarpen-kasuak edo ziberbulliyng-kasuak aztertzea eta horiek biktimengan dituzten ondorioak neurtzea. Ikuspegi horretatik, ikasleek hobeto ulertuko dituzte arazoaren izaera eta neurria.

JARDUERAREN GARAPENA

Sare sozialen erabilera desegokiaren ondorioz sortu den gatazka bati buruzko testu bat irakurriko da. Taldekide batzuek gatazka horretan esku hartzen duten pertsonen rolak jokatuko dituzte; horretarako, ondo amaitzen den

istorio bat eraiki beharko dute, rolak eta deskribatzen den gatazka kontuan hartuta.

Gainerakoak behatzaile gisa arituko dira, eta, gatazka deskribatu eta antzeztu ondoren, zatar-paperean idatzi beharko dute zer sentitu duten egoera horren aurrean. Horrez gain, gatazka saihesteko rol bakoitzak nola jokatu behar zuen eta, gatazka hauteman ondoren, zer jarrera izan behar zuen deskribatu beharko dute.

GOGOIA IZAN: *tratu txarrak daudenean, pertsona bat dago hor tartean, jazarri egiten dutela eta tratu txarrak ematen dizkiotela sentitzen duena. Bestea baztertuz errespeturik gabe jokatzen duen pertsona ez da balioesten; aitzitik, beldurra eragiten du.*

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Inkesta egin ondoren, egindakoa bateratuko dute talde handian, guztien artean zer emaitza izan diren ikusteko. Dinamizatzaileak zuzenduko du saioa, eta galdera hauek egingo ditu horretarako:

Ikasgelan horrelakorik gerta daitekeela uste duzue?

Zer egin behar zen gertatu zena gerta ez zedin?

Zuen ikasgelan edo ikastetxean horrelakorik gertatzen dela uste duzue? Zer uste duzue horretaz?

Jazarpen modu hori larria iruditzen zaizue, edo ez da horrenbesterako?

Biktimari kalte egin diezaiokeela uste duzue?

Ziberbullying-egoera bat bizitzen ariko bazinatekete, kontatuko zenioke pertsona heldu bati?

Ez kontatuz gero, zer uste duzue, egoera hobetu egingo litzatekeela, edo areagotu egingo litzatekeela?

Interneten pertsona bati eraso egiten badiote, nola geldi daiteke hori?

Zer egin dezakegu guk prebentzio modura, jazarpenik jasan ez dezagun?

ONDORIOAK

Teknologia berrien erabilera desegokiarekin lotuta arazo bat sortzen denean gure inguruan, garrantzitsua da biktimak betetzen duen tokia ez ezik arazo horretan esku hartzen duten guztien tokia eta jarrera ere aztertzea. Jazarpen edo ziberbullying-egoera batean, funtsezko tokia betetzen dute alderdi guztiek irtenbidea bilatu ahal izateko.

// eranskinak - KASUAK eta ROLAK

DBH 2

KASUAK:

1-Ikaskelako Whatsapp-taldeko batzuk Whatsapp-taldean ez dagoen hirugarren pertsona baten argazki manipulatuak eta hari buruzko iruzkin iraingarriak igotzen hasi dira. Taldekide batzuei ez zaie ondo iruditu, beste batzuei, berriz, ondo iruditu zaie, eta batu egin dira...

2-Ikaskelako ikasle batzuek kontu bat ireki dute Twitter-en, ikaskelako beste pertsona bat balira bezala jokatzuz, eta gainerako ikaskideei asmatutako mezuak eta mezu iraingarriak bidaltzen hasi dira.

3-Ikaskelako ikasle batzuek blog bat sortu dute, "Institutuko txutxu-mutxuak" izenekoak; institutuko jendeari buruzko iruzkinak eta "lapurtutako" argazkiak igotzen dituzte blog horretara. Gelan, guztiek dakite nor diren blog horren egileak, baina, orain arte, ez du inork ezer esan.

ROLAK:

Gatazkaren biktimak: barnekoa da, ez da laguntza eskatzera ausartzen; arazoa gero eta handiagoa da, baina itota sentitzen da, egoerak blokeatuta baitauka.

Biktimaren 1. laguna: badaki lagunak arazoren bat duela, baina berak ez du arazorik nahi, eta ez da ezer galdetzera ausartzen.

Biktimaren 2. laguna: badaki lagunak arazoren bat duela, eta lagundu egin nahi dio, baina, behin eta berriro galdetu arren, lagunak ez zaiola ezer gertatzen erantzuten dio.

Gatazkaren eragile diren 6 lagun: nagusikeriaz jokatzeko dute, biktimari erasoka ari dira beti ondo pasatzeko, eta ez daukate gelditzeko asmorik.

Gatazkaren eragile diren beste 2 lagun: gainerakoak bezala, biktimari erasoka hasi ziren, baina gelditu egin nahi dute, biktimari eragiten ari diren minaz eta beren ekintzen larritasunaz jabetzen hasi baitira.

Biktimaren ama: kezkatuta dago, badaki semeari edo alabari zerbait gertatzen zaiola, ordenagailuarekin lotuta dagoen zerbait, eta, behin eta berriro galdetu arren, ondo dagoela erantzuten dio.

Biktimaren aita: badaki semeari edo alabari zerbait gertatzen zaiola, ordenagailuarekin lotuta dagoen zerbait; hark ondo dagoela erantzuten dio, baina neurriak hartu nahi lituzke, nahiz eta ez dakien zer egin.

Irakaslea: biktimari zerbait gertatzen zaion sumoa du, baina inork ezer ez du esaten gelan, eta gero eta tentsio handiagoa nabari da.

// KONPROMISOA

DBH 2

HELBURUAK

- Programan eskuratutako ezagutzak ikus-entzunezko batean txertatzea.
- Teknologia berriak modu egokian erabiltzeko konpromisoa islatzea.
- Sorkuntza-lan baten bitartez parekoen artean teknologia berrien erabilera arduratsua hedatzea.

DENBORA

- 90 minutu

MATERIALA

- Animoto programa (eranskinean azalduta dator).

TESTUINGURU TEORIKOA

Ezaguerak barneratu ondoren, arriskuei eta hartu beharreko prebentzio-neurriei buruz gogoeta egin ondoren eta teknologia berriak desagoki eta asmo txarrez erabiltzeak eragin ditzakeen indarkeriazko egoerez jabetu eta gero, garrantzi handia du beroriek arduraz erabiltzeko konpromisoa hartzeak.

JARDUERAREN GARAPENA

Taldeetan bilduko dira, eta sarearen erabilera desagokiarekin lotutako arazo bat islatzen duen istorio bat adostu beharko dute.

Istoria pentsatu ondoren, Animoto programa erabiliko dute berori garatzeko (sareko programa bat da, bideoak egiteko balio duena).

Istorio guztiek, lantzen duten arazoa edozein motatakoa delarik ere, honako eredu honi jarraituko diote:

- Pertsona batek ekintza desagoki bat egiten du sare sozialen bidez, edo hirugarrenek egiten duten zerbaiten biktima da.
- Arazoa larriagotu egiten da.
- Biktimak laguntza eskatzen du.
- Guztien artean irtenbidea bilatzen diote arazoari.
- Teknologia berriei buruzko mezu positiboa, beroriek arduraz erabiltzeko deia.

JARDUERA AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

Ikasleek landutako komiki guztiak proiektatuko dira, eta, horren ondoren, amaierako gogoeta egingo da.

Istoria pentsatzea kostatu egin zaizue?

Zuen ustez, beste batzuentzat lagungarri izan daitezke zuek egindako lanak, segurtasun handiagoz nabigatzeko?

Ezer ikasi duzue programaren bidez?

Zuen iritziz, hemendik aurrera modu desberdinean gerturatuko zarete teknologia berrietara?

Nola?

Zuen inguruan eraso edo jazarpen baten berri izaten baduzue, jarrera bera izango duzue?

ONDORIOAK

Jarduera honen bidez, ikasleek orain arte ikasitakoa hobeto barneratzeaz gain, programa garatzeko orduan landu dituzten alderdi garrantzitsuenak erakutsi ahal izango dizkiete gainerako ikasleei, egin dituzten lanen bidez; mezua parekoengandik iristen denean, arreta handiagoa jartzen baitiote mezu horri, eta sakonago barneratzen baitituzte nabigazio segurua bermatzeko bete beharreko jarraibideak.


// eranskinak - ANIMOTO PROGRAMA

DBH 2


<http://animoto.com/>




Sakatu "LOG IN" aukeraren gainean.
WITH YOUR EMAIL:
egonlinesuspergintza@gmail.com
PASSWORD: egonline




Sakatu "CREATE" aukeraren gainean.



Aukeratu gehien gustatzen zaizun estiloa.



Estiloa aukeratu ondoren, sakatu "PURCHASE VIDEO".




Sakatu testua igotzeko karratuaren



ganean edo argazkien ganean




Sakatu musikaren ikonoaren ganean, melodia hautatu ahal izateko.



Argazkiak eta testuak igo ondoren, sakatu "PREVIEW VIDEO".



Azken emaitzarekin ados bazaude, txertatu izenburua, data eta, nahi baduzu, baita bideoari buruzko deskribapen labur bat ere; eta sakatu "SKIP & PRODUCE".



Bideoa ikusteko, lotura kopia dezakezu, edo “EGONLINE”-“MY VIDEOS” atalean sar zaitezke.

egon line



IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

// ZER GERTATZEN DA IKASGELETAN?	91
// IKASLEENTZAT ETA FAMILIENTZAT ORIENTABIDEAK	97
// ZENBAIT HITZEN ESANAHIA	99
// GAIAREKIN ZERIKUSIA DUEN MATERIALA	102

egon line

// ZER GERTATZEN DA IKASGELETAN?

IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

ZERBAIT ALDATZEN ARI DA

Zerbait aldatu da: duela hamar bat urtetik jada, teknologia berriak eta batez ere Internet oldarrean sartu dira ikasgeletan, eta gero eta gehiago zabaldu dira. Horrez gain, Web 2.0 guneak hainbat aplikazio ekarri ditu, eta sare sozialak nagusitu dira bereziki; ikasleen arteko komunikaziorako bideei eta moduei beste dimentsio bat eman diete sare horiek. Tresna horiek izugarritzko ahalmena dute pedagogiaren ikuspegitik, eta gero eta ohikoagoak dira ikasgelako eguneroko jardueretan; baina, aldi berean, hainbat arazo ere sorrarazi dituzte, eta, hezitzaile garen aldetik, arazo horiei heldu behar diegu.

Egia da ikasleen artean beti izan direla gatazkak gela barruan, baina, teknologia berrien esparruan, orain arte inoiz ikusi ez zen paradoxa bat gertatu da; lehen aldiz, ikasleak bere hezkuntza-erreferenteek baino gaitasun handiagoak ditu esparru batean.

Paradoxa horrek bidea adarkatu du, eta bi norabide agerrarazi ditu: alde batetik, ikasleek arduraz erabiltzen dituzte teknologia berriak, fitxategiak trukatzeko, lankidetzan lan egiteko, informazioa biltzeko... Baina, bestetik, hezkuntza-erreferenteen gabezia horrek hainbat arazo ekarri ditu, teknologia berriak arduraz ez erabiltzearekin lotuta: fitxategi desegokiak bidaltzea, parekoak erasotzeko erabiltzea teknologia berriak, informazio pertsonala oso kopuru handitan erakustea... Bigarren esparru horretan, ezinbesteko garrantzia du hezitzaileak, hezkuntza-erreferenteen gabezia horren ondorioz, oso ahalmen handia duten interakzio-tresnak nahiko erraz erabiltzen baitituzte adingabeek, beren jokabidea gidatuko duen kode moralik gabe.

WEB 2.0



Web 2.0 gunea gaur egun Internet osatzen duten tresnez josita dagoen unibertsoa da. Informazioa eta komunikazioa errazteko hainbat aplikazio daude bertan. Entziklopedia birtualak, sare sozialak, bideo-fitxategietarako plataformak, musika, argazkiak, webguneak, blogak, bilatzaileak, hezkuntza-aplikazioak, lankidetzarako aplikazioak, etab.

Zalantzarik gabe, Web 2.0 guneak aukera ugari ingurune bat eskaini die gizarteari eta hezkuntza-sektoreari, baina garrantzitsua da, halaber, gune horren agerpenean erabakigarria izan den alderdi bat azpimarratzea. Duela hamabost urte inguru, Internet oldarrean jendartearen sartu zen garaia hasieran, Web 1.0 gunea zegoen; gune horretan, eduki estatikoak sortzen ziren, eta erabiltzailea berorien kontsumitzaile zen soilik; hau da, edukiak ikus zitezkeen, baina ezin zituen sortu.

Web 2.0 gunearen agerpenak “kontsumitzaile-ekoizle” fenomenoak sortu zuen: erabiltzaileak edukiak kontsumitu ez ezik ekoiztu egiten ditu. Alderdi hori oso positiboa da, sarea demokratizatu baitu; erabiltzaile den edonork sor ditzake iritziak eta edukiak. Baina, bestalde, hortxe kokatzen da ikasleen artean arazo askoren sortzaile den zutabe nagusia ere; erabiltzaileak sarera isur ditzakeen iritzi, fitxategi eta informazio horiek ez dira beti egokiak edo seguruak.

ZER TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?

Web 2.0 guneak eskaintzen dituen aplikazio guztien artean, ikasleek gaur egun gehien erabiltzen dituztenak sare sozialak eta telefono bidezko Whatsapp aplikazioa dira.

Sare sozialek (Facebook, Twitter, Instagram eta Tuenti) antzeko ezaugarriak dituzte esparru batzuetan; zehazki, sare horiek arduraz ez erabiliz gero ikasleen artean izan daitezkeen arazoekin lotuta dauden esparruetan:

- Datu pertsonalak erakusgai jartzeko bideak errazten dituzte.
- Informazio pertsonala erakusgai jartzeko bideak errazten dituzte.
- Kide ugari taldeen artean (horietako asko ezezagunak) informazioa edo iruzkinak trukatzeko bideak errazten dituzte.
- Kide ugari taldeen artean (horietako asko ezezagunak) argazkiak eta bideoak trukatzeko bideak errazten dituzte.

Tresnak modu eraikitzailean erabiltzen badira, oso positiboak izan daitezke ezaugarri horiek; baina arriskutsu eta arazo sortzaile ere izan daitezke, arduragabekeriak erabiliz gero. Hau da, ondo ezagutzen dute tresna horien funtzionamendua, baina, hezitzaile garen aldetik, gure ardura da horiek nola erabili irakastea.

Smartphoneak agertu zirenetik ikasleen artean izugarri zabaldu den beste aplikazio bat Whatsapp-a da. Etengabe aldatzen ari den mundu bat da hau, eta, duela gutxi nerabeen artean gehien erabiltzen zen tresna Tuenti bazen ere, gaur egun Whatsapp-ak hartu du lehen tokiak. Aplikazio hori agertu zenetik, beste hainbat ezaugarri ere agertu dira modu paraleloan, teknologia berriak arduragabekeriak erabiltzeak ekarri dituen arazoekin lotuta.

Sare sozialetan, arazorik handiena erabiltzaile ezagunen eta ezezagunen kopuru handi baten aurrean datuak neurririk gabe erakusteak sortzen zuen. Whatsapp aplikazioarekin, ordea, arazoaren izaera aldatu egin da, batez ere, tresna horrek jende taldeak sortzeko eskaintzen dituen ezaugarrien bidez. Beren afektuen unibertsoa oso modu indartsuan biltzen duten taldeak daude (ikasgelakoen taldea, maila berekoen taldea, lagun taldea, entrenamendukoena...); beraiengandik gertuen dauden parekoek osatutako taldeak, etengabe konektatuta daudenak; eta, berorietan, ekintza desegoki batek arazo bat ekar diezaiotke erabiltzaileari. Gainera, gehien ezagutzen dituen parekoen taldea sartuta dago inguru horretan.

INDARKERIA MODU BERRIAK

Indarkeria betidanik existitu izan da, baina berorren adierazpenak nahiz berori gauzatzeko bideak aldatu eta bilakatu egin dira denborak aurrera egin ahala.

Gaur egun, IKTekin batera, indarkeria modu berriak agertu dira; besteak beste, Groming-a: adingabeen aurkako sexu-jazarpena sarean; Sexting-a: sexu-edukia duten irudiak (argazkiak edo bideoak) bidaltzea sakelako telefonoaren bidez; haur-pornografia, delitu informatikoak, iruzurra, sektak, ziberbullying-a (berdinen arteko jazarpena sarean).

Azken modu horretan, hots, berdinen arteko sareko indarkerian edo jazarpen digitalizatuan, bada kezka eragiten duen kontu bat, azken garaiotan profil berri bat hartu duena: indarkeria mota horrek ezaugarri berriak ditu, bai eta eraso egiteko modu berriak ere, bullying-arekin* lotuta.

**Bullying: berdinen arteko tratu txarrak; pertsona batek edo talde batek, erasoka eta benetan edo fikzioan duen boterea gehiegikeriaz erabiliz, kide bati behin eta berriro eta modu iraunkor batean mina emateko asmoz zuzentzen dizkion jokabide fisikoen edota hitzezko jokabideen multzoa (Olweus).*

Beraz, alde batetik, ziberbullying-aren inguruan lan egin behar da, teknologia berriek eskatzen dituzten sentsibilizazioa eta heziketa landu behar dira, berorien erabilera egokia bermatzeko; prebentzioaren bidez eta gure ohiturak zuzenduz, erabilera segurua egin beharraz sentiberatu behar dira; eta, bestetik, gurasoek eta irakasleek gai honetan betetzen duten toki garrantzitsuak gogoeta egin behar da.

Ziberbullying-a:

Esan daiteke **ziberbullying-ak edo jazarpen digitalizatuak** izaera eta motibazio desberdinak dituela bullying-arekin alderatuta.

Ziberbullying-a pertsona gazte bati mehatxu egiten diotenean, pertsona gazte hori xaxatu, umiliatu edo mintzen dutenean gertatzen da, edo beste gazte baten jopuntu bihurtzen denean, Internet, sakelako telefono edo beste komunikazio-teknologia telematikoko batzuen bidez.

Ez du soilik une batean gertatu behar, eta bi aldeetan adingabeek egon behar dute; jazarpenaren protagonista pertsona helduak direnean, ez da izango ziberbullying-a.

Bide telematikoa gehiegikeriak egitea sustatzen duten faktoreak dira anonimotasuna eta zigorgabetasun-sentipena.

Neurri handi batean, gazteek astialdi gehiago dutelako, teknologiak gehiago erabiltzen direlako eta familiek gutxiago kontrolatzen dituztelako gertatzen da ziberbullying-a.

Familiak oso gutxi edo batere ez gainbegiratzea teknologia horiekin nahasten denean, ulergarria da erabat ziberbullying-a, baina inoiz ez onargarria.

Nola egiten da?

1. Berehalako mezularitzaren edo SMSen bidezko jazarpena.
2. Pasahitza lapurtzea (beste norbaiten tokia hartuta).
3. Blogak (nabigazio-egunkarien edo bestelako egunkarien antzekoak dira blogak, eta gazteek iruzkinak argitaratzen dituzte).
4. Beste web batzuk (batzuetan, webguneak sortzen dira besteak iraintzeko, edo beste talde batzuei enbarazu egiteko).
5. E-mail bidez edo sakelako telefono bidez argazkiak bidaltzea.
6. Interneteko inkestak (elkarri puntuak emateko erabiltzen dituzte: nor den arrakasta gehien duena, nor den baboena...).
7. Erabiltzaile anitzeko jolasak.
8. Programa kaltegarriak igortzea.
9. Pornografia eta zabor-mezuak bidaltzea.
10. Besteen identitatea ordezkatzea.

Zergatik gertatzen dira horrelakoak?

Jazartzailea

Askotan, jazartzaileek ezaugarri hau izaten dute: bestearen tokian jartzeko enpatiarik edo gaitasunik ez izatea, eta beren egintzek eraso horiek jasaten dituztenengan eraginik ez dutela sinestea.

Batzuetan, motibazioa amorruak, frustrazioak, mendeku hartu nahiak edota asperdurak eragin dezakete; batzuek nahi gabe ere egin dezakete, edo mina eragiten ari direla jabetu gabe.

Biktima

Zaila da jazartzaile baten profila zehaztea; bada, are zailagoa da biktimen ezaugarriak zehaztea, biktima horiek estigmatizatu gabe.

Gehienengan ikusten den ezaugarrietako bat asertibotasun falta da, hau da, beren beharrak adierazteko eta bere burua errespetarazteko ezintasuna.

Egoera batean eraso egiten diotela sentitzen dutenean, hauskortasun-sentimendua indartzen da, eta estres emozionala eragin dezake horrek.

ARAZO BERRIAK?

Puntu honetara iritsita, argi eduki behar dugu teknologia berriek ez dituztela asmatu nerabeen arteko harremanetarako eta garapenerako eredu berriak. Teknologia berririk ez zegoenean nerabeek egiten zuten horretatik aparteko ezer ez dute egiten nerabeek teknologia berrien, sare sozialen edota Whatsapp-aren bidez.

- Beren identitatea eraikitzen dute.
- Jendea ezagutzen dute.
- Probak egiten dituzte.
- Erakustaldiak egiten dituzte.
- Arriskuak hartzen dituzte.

Hortaz, kontua ez da errua teknologia berriei edo sare sozialei botatzea, eta horixe da programa honen helburuetako bat. Saretik kanpo, gai gara ikasleei garapen etiko eta moral bat helarazteko; beraz, garapen mota hori bermatuko duten balio eta kode moralak irakasteko espazio berri bat eraikitzea zuzendu behar du orain helburuak.

Abiapuntu horixe izan behar dugu erreferentziatzat, hezitzaile garen aldetik: sare barruan eta saretik kanpo ditugun jokabideen testuingurua; izan ere, ikasleak teknologia berrien arloan gaitasun handiagoak ditu bere hezkuntza-erreferenteek baino, egia da hori; baina egia da, halaber, hezkuntza-erreferente horiek behar dituztela tresna horiek segurtasunez erabiltzen ikasteko.

Ikasleek barneratuta daukate saretik kanpo arriskutsua zer den eta zer ez den, hori helarazi dieten hezkuntza-erreferenteak izan dituztelako (ezezagunei datuak eman, barruko zerbait partekatu, hirugarrenen datuak erabili...); baina, jokabide horiek sarera isurtzean, zenbait kontzeptuk halako distortsio bat izan dute.

Adiskidetasuna

Lehen distortsioa “lagun” kontzeptuarena da; saretik kanpo, askoz zorrotzagoa da laguntzat hartzen duten hura aukeratzeko irizpidea, eta, beren gauzak, kezkek, sekreturik barrukoena nori kontatuko lizkioketen aztertuz gero, horrelako kontuak ez lizkiokete kontatuko lauzpabost laguni baino gehiagori; baina, sareko harremanetan, “lagunak” aukeratzeko irizpidea asko lausortzen da, eta kezkgarria da hori; adiskidetasunaren ikuspegi horretan, tartean behingo harremanak dituzten jendea, ia ezagutzen ez duten jendea edota ezezagunak daude.

Barrukotasuna

Halako distortsio batez ikusten den beste kontu bat dakar horrek: “barrukotasuna”; izan ere, saretik kanpo kontzeptu hori zorrotz zaindu arren eta “barruko” kontuak soilik lagun minenekin partekatu arren, argazkiak eta

informazio pertsonala laguntzat hartzen dituzten pertsona guztiakin parteka ditzakete sarean, eta sare sozialek sarea handitzeko zer ahalmen duten ikusita, 300, 500 edota 800 lagun ere izan daitezke guztira.

Foroa

Azken distortsioa ikusaraziko digu horrek, “foro” kontzeptuarena; hau da, informazio pertsonala partekatzen dugun pertsonen edo hirugarrenen kopurua. Saretik kanpo, oso ondo neurtzen dute informazio mota bat zenbat jenderekin partekatuko duten; baina, sarearen barruan, ahaztu egiten dute edo irizpide hori ikusezin bihurtzen da, eta gai dira beren barruko kontuak jendearekin mugarik gabe partekatzeko.

Beraz, hezitzaile garen aldetik sarean adingabearen segurtasuna hobetzeko landu behar dugun helburu nagusietako bat sareko kode moral horiek helaraztea da.

NOLA EGINGO DUGU?

Beldurra

Nola iritsiko gara ikaslearengana? Nola helarazizko dizkiogu kode moral horiek? Arazoari irtenbidea aurkitzeko, funtsezkoak dira bi galdera horiek.

Alde batetik, garrantzitsua da beldurraren fenomeno sakonago aztertzea. Askotan, sareko arriskuei aurre egiteko orduan, ekintza batzuei izenak jartzen dizkiegu, edo jartzen dizkiote, eta badirudi kudeatu ezin ditugun errealitateak direla; eta beroriek ulertuko ez ditugun beldurra sentitzen hasten gara. Hobeto kudeatzeko lagungarri gerta dakizkigukeen ekintza batzuk itzultzen saia gaitzke; azken finean, Internet eta Web 2.0 gunea besteekin bat egiteko edo ez egiteko tokiak dira, bizitza erreala bezalaxe. Arretaz jokatzeko eta berori eraikitzea beharrezko zeregina da hazteko, gatazka kudeatzeko den bezalaxe.

Grooming-sufritu-ondoan egon
Cyberbullying- gehiegikeria – hitz egin
Sexting - jazarpena - gelditu
Phishing- iruzurra - pentsatu

Azken batean, ez dira arrisku eta arazo berriak nerabeentzat, eta, hezitzaile garen aldetik, aurre egin behar diegu. Betiko arazoak dira, bitarteko berri batean agertu direnak orain, eta, beraz, gure zeregina da, hezitzaile garen aldetik, ingurune hori (erabiltzen dituzten tresnak) gertuagotik ezagutzea eta ulertzea, gure ikasleei laguntzeko.

Ezintasuna

Hezitzaile-lanean aurkiko dugun beste arazo bat zera da, tresna horiek ulertzeko senti dezakegun ezintasuna. Tresna horien funtzionamendua ulertzeak ez duela beroriek menderatzea esan nahi azpimarratu behar dugu; hau da, tresna horien erabilerak sor ditzaketen arazoak ulertzeko berorien funtzionamenduaren oinarriko elementuak ulertzea ez da zeregin korapilatsua.

Esparru horretan, teknologia berriekiko gertutasuna eta beroriekiko normaltasuna hauteman behar dituzte ikasle eta seme-alabek guregan, bion arteko interakzioan, eta horixe da premia nagusia. Arrakala digital horrek sorrarazi duen hesiak urrundu egin baikaitu, eta askotan hezitzaileak ez baitira ikasleengana hurbiltzen, ez ulertzeko beldurra dutelako, eta ikasleek ere ez baitute jotzen hezitzaileengan, ulertuko ez dieten beldurrez.

Hortaz, gure helburua sarean berme osoz ibil daitezen kode moral horiek helaraztea bada, guk ere berrietara hurbildu behar dugu, eta arrakala hori murriztu behar dugu. Alde batetik, gu geu teknologia berri horietara hurbilduz murriz daiteke tarte hori, eta, bestetik, zeharka ikasgelan teknologia berriak txertatuz. Bai askotariko aplikazio eta tresnak erabiliz, bai ardatz nagusizat horrelako aplikazio eta tresnak dituzten proiektuak eginez.

Ikasleek teknologia berriak ikasgelan normalizatuta daudela hautematen dutenean, desagertu egingo dira kode moral horiek helarazteko ditugun zailtasunak, eta, zalantzarik gabe, segurtasun handiagoz nabigatuko dute.

ZER HELARAZI BEHAR DIEGU?

Ikaslearengandik urruntzen gaituen oztopo hori desagerraraztea lortzen dugunean, helarazi behar dizkiegun oinarrizko alderdi horiek azken batean oinarrizko zazpi kontzeptutara mugatzen direla ikusiko dugu:

Datu pertsonalak

Sarean gure datu pertsonaletatik zein ematen ditugun azertu. Ez da beharrezkoa gure telefonoaren, helbidearen, bizilekuaren edota ikastetxearen berri ematea aplikazio bat erabiltzeko.

Informazio pertsonala

Kontu handiz eman informazio pertsonala. Jende ezezaguna ere egon daitekeen talde handietan, eta, beraz, ez da beharrezkoa zer egin behar dugun, non egongo garen, norekin egongo garen eta horrelakoak azaltzea hirugarrenei.

Argazkiak - Bideoak

Sarera igotzen dugun oro bertan betiko geldituko dela konturatu behar dugu. Beraz, sarera isurtzen ditugun edo sarean partekatzen ditugun bideoen eta argazkien edukia balioestea ezinbestekoa da, desegokiak izan baitaitezke edukiaren ikuspegitik, edo hirugarrenak ager baitaitezke berorietan eta haiei baimenik eskatu gabe ari baikara.

Pasahitza

Sareko gure aplikazioetan ditugun informazioa, fitxategiak edota kontaktuak oso pertsonalak dira, eta ezinbestekoa da horretaz jabetzea. Horregatik, ez dira inorekin partekatu behar gure aplikazioen pasahitzak, eta garrantzitsua da asmatzen zailak diren pasahitzak sortzea.

Lagunak

Garrantzitsua da sarean ditugun "lagunak" edo "erantsitakoak" hautatzeko irizpideak aztertzea. Gure barruko kontuak norekin partekatuko ditugun zehazteko orduan, aukeraketa ardua handiz egiten dugu saretik kanpo gabiltzanean; ildo beretik, sarean ere irizpide horrixe jarraitu behar diogu. Sareko gure aplikazioetan ditugun lagunak zerrenda berrikustea komeni da, eta ezagunak diren pertsonekin edo oso gutxi ezagutzen ditugunekin informazioa partekatu nahi dugun balioetsi behar dugu.

Jarraibideak

Zerbait lehen aldiz erabiltzen dugunean bezala, garrantzitsua da jarraibideak irakurtzea erabiltzen hasi aurretik. Teknologia berriak eta sare sozialak ez dira salbuespen. Aplikazio bat erabiltzen hasi aurretik berorren funtzionamendua ulertzea garrantzitsua da oso. Informazio pertsonala jende askorekin partekatuko dugu, eta, beraz, garrantzitsua da tresna konfiguratzeko jakitea, zer informazio mota eman nahi dugun eta norekin partekatuko dugun aukeratzeko.

Foroa

Sarean partekatzen duguna zenbat pertsonarengana hel daitekeen konturatzeak berebiziko garrantzia du. Gure mezuen hartzaileen kopurua benetan zeinen handia izan daitekeen ulertzen badugu, kontu handiz zainduko dugu zer erakusten dugun.

// IRAKASLEENTZAT ETA FAMILIENTZAT ORIENTABIDEAK

IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

JAZARPENARI EDO TRATU TXARREI BEREN AGERPIDE GUZTIETAN AURREA HARTZEKO ORIENTABIDEAK (FAMILIENTZAT)

Elkarrizketa tolerantetan eta teknologia berrien bidez jazarpenari heldu eta aurrea hartzean oinarritzen den familia-giro bat lortzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait jarrera dituzue ondoren:

- Noranzko biko komunikazio afektiboa: helarazi, baina baita jaso ere, batez ere afektua. Gure seme-alabekin hitz egin, baina haiek diotena ere entzun. Maite ditugula ikusarazi, ez hitzez soilik; modu asko dago hori adierazteko, baita hitzik erabili gabe ere. Irakatsi beren afektua adierazten, gu geu eredu izanik; agian ez da lagungarri gertatuko gatazkei irtenbidea bilatzeko, baina gatazka horiei heltzeko giro egokia sortzen lagundu dezake horrek.
- **Kalitatezko denbora:** hobe da denbora gutxi, baina kalitatezkoa. Saiatu zaletasunak seme-alabekin partekatzen.
- **Gatazkekin bizitzen ohitu:** beroriei helduz eta erantzunak emanez; gatazkek gauza normaltzat ikusten ikasiz. Pertsonen arteko harremanei berez dagokien zerbait da gatazka. Irakatsi ohiko moduetatik apartek beste modu batzuetara ere bilatzen erantzuna.
- Aurrekoari oso lotuta, **irakatsi bere burua hitza erabiliz babesten** eta, berarengan eragina duen erabaki baten aurrean eta erabaki horrekin bat ez datorrenean, asertibotasunez adierazten.
- **Indartu haren autoestimua**, dituen ezaugarri onak balioetsiz eta sustatuz.
- **Norbaiti laguntza eskatzeko konfiantza izan** behar duela gogorarazi (amari, aitari, irakasleren bati edo ikaskideren bati), beti aurkituko baitu entzungo dion eta bere egoera interesatuko zaion norbait.
- **Babestu eta segurtasuna eman**, zure presentziaren eta arretaren bidez; erakutsi haren beharrekiko eta harremanekiko interesa.
- **Saiatu Interneti eta sareari buruz gutxienez jakiten**, eta saiatu teknologiekin zerikusia duen guztiaren erantzukizuna zure seme-alaben gainean ez uzten.

Hitz egin beraiekin, eta aztertu ea Interneteko profiletan **egokiak ez diren datu pertsonalak** argitaratzen ari diren. Azaldu pasahitzek duten garrantzia, eta irakatsi toki seguruetan gordetzen.

JAZARPENARI EDO TRATU TXARREI BEREN AGERPIDE GUZTIETAN AURREA HARTZEKO ORIENTABIDEAK (IRAKASLEENTZAT)

Aurrez deskribatutako orientabide horietako askok eskola-esparruan ere lagun diezaguketela garbi utzi nahi dugu lehenengo; eta hemen dituzue berriaz eskola-ingurunerako diren beste batzuk.

- Familia-ingurunearekin **harremanetan egon etengabe**.
- Teknologia berriak eskola-curriculumean txertatu zeharka, esparru horretan hezitzailearen eta ikaslearen artean dagoen tarte murrizten eta normaltasunez jokatzen saiatuz.
- Teknologia berriak eta sare sozialak gertuagotik ezagutu, eta berorien oinarritzko elementuak ikasi.
- Ikastetxean, **lege-esparruak** ezarri ikasleekin batera, Internet erabiltzeko arauak eta arau etiko eta moralak finkatu ahal izateko.
- ...

Funtsezkoak diren elementuen zerrenda hori irekita utziko da, zuen ekarpenak egin ditzazuen; eta, aldi berean, tresna bat izan nahi du, zuen egoeraren arabera egokitutako errealitateen gauza dadin, elkarrizketaren bidez.

// ZENBAIT HITZEN ESANAHIA

IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

App: sakelako telefonoetan eta tabletetan erabiltzailearen zeregin zehatz batean laguntzeko instalatzen den software-aplikazioa; lanerako, aisialdirako edo entretenimendurako erabili daiteke.

Blog: bloga aldian-aldian berritzen den webgune bat da, egile baten edo batzuen testuak eta artikulua biltzen dituen kronologikoki; lehenengo berriena agertuko da, eta egileak askatasuna du berari garrantzizkoa iruditzen zaiona argitaratuta uzteko. Nabigazio-koadernoan antzekoa da. Nabigazio-koadernoak itsasontzietan erabiltzen ziren, eta bidaia nola zihoan jasotzen zuten. Gero, konpas-kutxan gordetzen zen koaderno hori.

Txat: txatak (ingelesez datorren terminoa, euskaraz berriketaldiren parekoa litzatekeena), ziberberriketaldi gisa ere ezagutzen denak, bat-batekotasunez egiten den berriketaldi idatzia adierazten du; bi pertsona edo gehiagoren artean egiten da, Internet bidez.

Ziberbullying: parekoen arteko jazarpena, teknologia berriak erabiliz.

Genero-ziberindarkeria: genero-indarkeria, teknologia berrien bidez egiten dena. Bikotekidea iraintzeko, kontrolatzeko edo hari mehatxu egiteko erabiltzen dira teknologia berriak.

Posta elektronikoa, email: komunikazio-sistema elektronikoaren bidez, erabiltzaileei mezuak (mezu edo gutun elektronikoak) berehala bidaltzeko edo jasotzeko aukera ematen dien sareko zerbitzua.

Ahaztua izateko eskubide: datu pertsonalak babestearekin lotutako eskubide bat da ahaztua izateko eskubidea. Datu pertsonal baten titularrak, informazio pertsonala zaharkituta gelditu delako edo moduren batean bere oinarriko eskubideren baten garapen askeari eragiten diolako, datu hori ezabatze, blokeatzeko edo kentzeko duen eskubidea dela esanez defini daiteke.

Etiketatu: norbait etiketatzen duzunean, haren profilarikiko lotura bat sortzen duzu. Adibidez, argazki bat etiketa dezakezu, argazki horretan nor agertzen den adierazteko, edo egoera bat eguneratzean horixe argitaratu dezakezu, eta norekin zauden adierazi. Zure egoera eguneratzean lagun bat etiketatzen baduzu, eguneratze hori ikusten duten pertsona guztiek zure lagunaren izenaren gainean klik egin ahal izango dute, eta haren profilerara jotzeko aukera izango dute.

Facebook: doako webgune bat da, eta, webgune horren bidez, argazkiak, bideoak edota dokumentuak parteka ditzakezu, edota Facebook-en izena emanda daudenekin harremanetan jar zaitezke. Facebookeko kide bakoitzak bere ezaugarriak biltzen dituen profil bat dauka, eta gonbidapenen bidez soilik jo dezakezu profil horietara.

- **Lagunen zerrenda:** zerrenda horretan, erabiltzaileak ezagutzen duen eta tresna honetan erregistratuta dagoen edonor erants dezake, aurrez gonbidapena onartzen badu.
- **Taldeak eta orriak:** interes bertsuak dituzten pertsonak biltzeko balio du. Taldeetan, argazkiak, bideoak, mezuak etab. erants daitezke. Orriak xede zehatz batzuetarako sortzen dira, eta,

taldearekin alderatuta, ez daukate eztabaida-fororik, marka edo pertsonaia zehatz batzuekin lotuta baitaude, eta ez deialdiekin.

- **Horma/Biografia:** erabiltzailearen profileko gune bat da, eta lagunei bertan mezu bat idazteko aukera ematen die, erabiltzaileak ikus dezan. Erregistratuta dauden erabiltzaileek soilik ikus ditzakete. Irudiak igotzeko aukera ematen du.
- **“Atsegin dut” botoia:** erabiltzaileak edo haren kontaktuek egindako argitalpen bakoitzaren beheko aldean agertzen da funtzio hau (egoera eguneratzean, partekatutako edukietan, etab.); hatz lodia gora begira duen ikono txiki bat dauka. Sare sozialeko uneko erabiltzaileak edukia atsegin duen balioesteko aukera ematen du.

Foro: Interneten, foroa –mezuen foro, iritzien foroa edo eztabaida-foroa ere esaten zaio–, web aplikazio bat da, sareko eztabaida eta iritzietarako euskarria ematen duena.

Grooming: heldu batek adingabe bati jazartzea edo xantaia egitea, teknologia berrien bidez.

Hackeatu: sistema informatiko baten segurtasuna urratu. Hainbat modutara egin daiteke: pasahitza lapurtzeari, babestutako software bat modu ilegalean kopiatzeari edo webgune bat erabileratik kanpo uzten duen ekintza bati egin diezaioke erreferentzia.

Hatz-marka: gure identitatearen erabilerak eta tratamenduak Interneten uzten duen marka da hatz-marka. Hau da, nola jokatzeko dugun, zer esaten dugun, nola, non eta horretarako zer oinarri ditugun hartzen du kontuan. Sareko gure jokabideen multzoak osatzen du hatz-marka.

Identitate digital: Interneteko erabiltzaile bakoitzak beste erabiltzaileekin aritzean edo edukiak sortzean uzten duen aztarna da.

Instagram: argazkiak partekatzeko sare sozial bat, programa bat edo aplikazio bat da; berorren bidez, erabiltzaileek argazkigintzako hainbat efektu aplika diezazkiokete argazki horiei, hala nola iragazkiak, markoak, kolore retroak edota vintage erakoak; gero, hainbat sare sozialetan parteka ditzakete argazkiak, Facebook, Tumblr, Flickr eta Twitter sareetan, adibidez.

Erabiltzaile anitzeko sareko jolas: sareko jolasak Internet bidezko bideojolasak dira. Jokalari anitzekin erabil daitezke, eta **beste hainbat pertsonarekin** jolasten dira horrelakoetan; **txat bidez hitz egin dezakete** berorien bidez.

Profil: bakoitzaren profilean, profileko argazkiak, argazki-albumak, bideo-kanalak, informazio pertsonala, interesak eta lagunak ikus daitezke. Hauek dira profilaren bi funtzio nagusiak: «Nire gune pertsonala» eta «Nire taula». Lehenengoan, sarrerak argitara daitezke, bideo eta argazkiekin batera. Bigarrenean, lagunekin egindako iruzkin guztiak agertuko dira.

Pishing: pasahitza lapurtzea, eta profila sare sozialean eta posta elektronikoan erabiltzea.

Sexting: sakelako telefono bidez eduki erotikoa edo pornografikoak bidaltzea.

Tuenti: erabiltzaileari aukera ematen dio bere profila sortzeko, beste erabiltzaile batzuk lagun gisa sartzeko edo mezu, argazki, bideo, orri edota gertaerak trukatzeko. Banakako eta taldeko txat-zerbitzua dauka, eta bideotxata ere egin daiteke pertsona batekin.

Twitter: gehienez 140 karaktere dituzten mezuek (tuit) bidal daitezke sare sozial honen bidez, eta erabiltzailearen orri nagusian erakusten dira mezu horiek. Beste erabiltzaile batzuen tuitak ikus ditzakete erabiltzaileek; “jarraipena egitea” esaten zaio horri, eta harpidetutako erabiltzaileak “follower” edo jarraitzaileak dira.

- **Trending topic:** twitterren une jakin batean gehien errepikatzen den gaia.
- **Retweet:** beste erabiltzaile baten mezuak zurean partekatzea.
- **Hastag:** aurretik traol ikur bat daraman eta hitz batek edo elkarri kateatutako hitz batzuek osatutako karaktereen katea. Web zerbitzuetan erabiltzen da, hala nola Twitter, Vituin, FriendFeed, identi.ca, facebook edota Instagram zerbitzuetan, bai eta IRC protokoloetan oinarritutako mezularitzan ere, elkarrizketa baten gaia adierazteko.

Web 2.0: informazioa partekatzeko bidea ematen duten webguneak hartzen ditu bere barnean Web 2.0 terminoak. Web 2.0 gune batek aukera ematen dio erabiltzaileari interakzioan jarduteko eta komunitate birtual batean erabiltzaileek sortutako edukietan sortzaile modura elkarrekin lan egiteko.

Webcam: ordenagailuari konektatutako kamera txikia, Internetera irudiak igortzen dituena.

WhatsApp: Smartphoneetarako aplikazio bat da, Internet bidez mezuak igortzeko eta jasotzeko balio duena. Testu-mezuak igorri eta hartzeaz gain, erabiltzaileek taldeak osa ditzakete, eta elkarri irudiak, bideoak eta audio-grabazioak bidal diezazkiokete.

Wiki: elkarlaneko webgune bat da, eta hainbat erabiltzailek edita dezakete.

// GAIAREKIN ZERIKUSIA DUEN MATERIALA

IRAKASLEENTZAKO MATERIALA

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- ZIBERBULLYING-KASUETAN IKASTETXEETAN JARDUTEKO PROTOKOLOA (PDF).
- ESTUDIO SOBRE HÁBITOS SEGUROS EN EL USO DE SMARTPHONES POR LOS NIÑOS Y ADOLESCENTES ESPAÑOLES (PDF).
- HAURREN ESKUBIDEEN ALDEKO KONBENTZIOA (PDF)
- PERFIL SOCIODEMOGRÁFICO DE LOS INTERNAUTAS (INE2013-KO DATUAK) (PDF).

KONFERENTZIAK/TXOSTENAK

JUAN MANUEL ROMERO, “COMO ACOMPAÑAR A LA INFANCIA EN SU ACCESO A INTERNET”
<http://www.youtube.com/watch?v=JXW-kn4xXHo&feature=youtu.be>

HEZKUNTZARI ETA IKT-EI BURUZKO BILTZAR BIRTUALA, “LA ESCUELA DEL FUTURO”
<http://congresoedutic.com/video>

JORDI ADELL, “PEDAGOGÍAS EMERGENTES EN LA SOCIEDAD DIGITAL”.
http://www.youtube.com/watch?v=8lQLE6_E5js

DOLORS REIG, “TECOLOGÍAS DEL APRENDIZAJE Y LA PARTICIPACIÓN”.
<http://www.youtube.com/watch?v=78eLwKuHzjU>

ANNA SANMARTIN, “EL SENTIDO DE ESTAR EN LAS REDES SOCIALES Y LOS NUEVOS PATRONES DE INTEGRACIÓN JUVENIL” (PDF).

LEGEDIA

LANZAROTEKO HITZARMENA (PDF).

ZIBERDELINKUENTZIARI BURUZKO EUROPAKO HITZARMENA (PDF).

HAURRENTZAT EGOKIAGOA DEN INTERNET BATEN ALDEKO EUROPAKO ESTRATEGIA (PDF).

DATUAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOA

HAUR ETA NERABEENTZAKO II. PLAN ESTRATEGIKO NAZIONALA, 2013-2016 (II PENIA) (PDF)

IRRATIAN

Hezkuntzarekin eta teknologia berriekin lotuta:

<http://www.canal.uned.es/mmobj/index/id/18272>

<http://www.canal.uned.es/mmobj/index/id/17691>

<http://www.canal.uned.es/mmobj/index/id/17930>

Interneteko segurtasunari lotuta:

<http://www.canal.uned.es/mmobj/index/id/17690>

http://www.cadenaser.com/sociedad/audios/guillermo-canovas-podemos-decir-trate-hecho-aislado/csrsrpor/20140306csrsrsoc_16/Aes/

<http://www.canal.uned.es/mmobj/index/id/17520>

ALBISTEAK/ARTIKULUAK

“EE UU se dispone a renunciar a su control sobre Internet”

http://tecnologia.elpais.com/tecnologia/2014/03/14/actualidad/1394836270_341489.htm

“El Centro para la Prevención del Acoso de Facebook llega a España”.

http://www.expansion.com/agencia/europa_press/2014/05/21/20140521134433.html

“Sobre alfabetización y educación digital”.

<http://www.enriquadans.com/2014/05/sobre-alfabetizacion-y-educacion-digital.html>

“La comunicación digital en el aprendizaje entre iguales: niños y jóvenes como educadores en la Red”.

<http://plataformadeinfancia.org/documento/la-comunicacion-digital-en-el-aprendizaje-entre-iguales-ninos-y-jovenes-como-educadores-en-la-red/>

“De la insensibilidad al activismo: educando Superpoderes para el joven conectado”.

<http://www.dreig.eu/caparazon/2014/05/11/del-realismo-a-la-resiliencia/>

“La publicidad en las apps infantiles”. <http://www.gentedigital.es/generacionapps/la-publicidad-en-las-apps-infantiles-2/>

“Llega una aplicación para denunciar el ciberacoso escolar”. <http://www.elperiodico.com/es/noticias/tecnologia/llega-una-aplicacion-para-denunciar-ciberacoso-escolar-3272097>

“El Congreso crea un grupo de trabajo para abordar la violencia contra los niños”, <http://www.europapress.es/epsocial/politica-social/noticia-congreso-crea-grupo-trabajo-abordar-violencia-contra-ninos-20140528195451.html>

Santiago Tejedor y Cristina Pulido, “Retos y riesgos del uso de Internet por parte de los menores. ¿Cómo empoderarlos?” (PDF).

INTERNETEKO SEGURTASUNAREKIN LOTUTAKO WEBGUNEAK/BLOGAK

INFANCIA SOCIEDAD CONOCIMIENTO <http://infanciasociedadconocimiento.blogspot.com.es/>

Interneteko haurren pornografiaren aurkako denuntzia-lerroen nazioarteko sarea:
<http://www.inhope.org/gns/home.aspx>

PROTEGELES www.protegeles.com/

NAVEGACIÓN SEGURA <http://navegacionsegura.es/>

CHAVAL .ES <http://chaval.es/>

DOLORS REIG, <http://dreig.eu/caparazon/>

SLIDESHARE, <http://es.slideshare.net/RACOSTAR/web20-1153627>

HOGETTI <http://www.hogetti.net/>

TRABAJO EN RED <http://trabajoenred-web20.wikispaces.com>

IKASGELAKO LANERAKO SAREKO APLIKAZIOAK

Denbora-lerroak

Dipity <http://www.dipity.com/>

TimeToast <http://www.timetoast.com/>

XTimeLine <http://www.xtimeline.com/index.aspx>

Rememle <http://www.rememle.com/>

k

Clock2Map. <http://www.click2map.com/>

ZeeMaps <http://www.zeemaps.com/>

Gliffy <http://gliffy.com/>

Blubb.us <https://bubbl.us/>

Cacoo <https://cacoo.com/>

Create a Graph <http://nces.ed.gov/nceskids/createagraph/default.aspx>

Snapshot <http://snapshot.com/>

ArtPad <http://artpad.art.com/artpad/painter/>

Egutegiak

Google calendar <http://www.google.com/intl/es/googlecalendar/tour.html>

Heziketarako sareak, ika

sgelarako sareak

Auula <http://www.auula.net>

egon line

IKASGELAKO LANERAKO SAREKO APLIKAZIOAK

Denbora-lerroak

DENBORA LERROAK

Dipity <http://www.dipity.com/>

TimeToast <http://www.timetoast.com/>

XTimeLine <http://www.xtimeline.com/index.aspx>

Remembre <http://www.remembre.com/>

k

MAPAK

Clock2Map. <http://www.click2map.com/>

ZeeMaps <http://www.zeemaps.com/>

KONTZEPTU-MAPAK

Gliffy <http://gliffy.com/>

Blubb.us <https://bubbl.us/>

Cacoo <https://cacoo.com/>

IRUDI ETA BIDEOEN EDIZIOA SAREAN

Create a Graph <http://nces.ed.gov/nceskids/createagraph/default.aspx>

Snipshot <http://snipshot.com/>

ArtPad <http://artpad.art.com/artpad/painter/>

EGUTEGIAK

Google calendar <http://www.google.com/intl/es/googlecalendar/tour.html>

Heziketarako sareak, ika

HEZIKETARAKO SAREAK, IKASGELARAKO SAREAK

Auula <http://www.auula.net>

Edmodo <http://www.edmodo.com/home> :

Redalumnos www.redalumnos.com

Webnode <http://edu.webnode.es/>

ak

BIDEOAK

You Tube - <http://www.youtube.com>

Vimeo <http://vimeo.com/>

Edu3 <http://www.edu3.cat/>

Dalealplay <http://www.dalealplay.com/>



MULTIMEDIA-AURKEZPENAK/ANIMAZIOAK

SlideShare <http://www.slideshare.net/>

Slidestory <http://www.slidestory.com/>.

Prezi <http://prezi.com/> (manual, guía)

Vuvox <http://www.vuvox.com/>

Slide <http://www.slide.com/>

Slideboom <http://www.slideboom.com>

Scribd <http://www.scribd.com>

PhotoShow <http://www.photoshow.com/>

Animoto <http://animoto.com/>.

Issuu. <http://issuu.com/>.

VoiceThread <http://voicethread.com>

Audiolibros <http://www.leerescuchando.net/audiobks.php>

Glogster <http://www.glogster.com> ; Eduglogster <http://edu.glogster.com>

Goanimate. Animazioak sortzeko <http://goanimate.com/>

PODCAST: AUDIOA PARTEKATU

Educating <http://www.educating.info> (podcast hezigarriak sortzeko)

Podsonoro <http://www.podsonoro.com/>

Podomatic <http://www.podomatic.com>

Irudiak

IRUDIAK

icassa (Google) <http://picasaweb.google.es>

Flickr (Yahoo) <http://www.flickr.com/>

BubbleShare <http://www.bubbleshare.com/>

DOKUMENTUAK, KOMIKIAK, KARTELAK

Scribd <http://www.scribd.com/>

Calameo <http://www.calameo.com/>

Bubbleshare <http://www.bubbleshare.com> (komikia)

Pixton <http://pixton.com> (komikia)

PikiStrips <http://www.comeeko.com/> (komikia argazkiekin)

Glogster <http://glogster.com> (kartelak)

Scrapblog <http://scrapblog.com> (kartelak)

LIBURU BIRTUALAK

La prestatgeria <http://phobos.xtec.cat/lilibres/prestatgeria/index.php>

Storybird. <http://storybird.com/> Collaborative Storytelling (ipuinak)

Myths and Legends http://myths.e2bn.org/story_creator/ (sarean ipuinak sortzeko)

Libros en 3D con realidad aumentada: <http://alpha.zooburst.com/>

Myebook <http://www.myebook.com>

Isuu <http://isuu.com>

Bubok: liburuak argitaratzeko <http://www.bubok.es/publica>

Wikiak

WIKIAK

Google sites <http://sites.google.com/>

Pbwiki <http://www.pbwiki.com/>

Tiddlywiki <http://www.tiddlywiki.com/>

Wetpain <http://www.wetpaint.com/>

Wiki MailxMail <http://wiki.mailxmail.com/>

Wikispaces <http://www.wikispaces.com/>

BLOGAK, WEBLOGAK EDO NABIGAZIO-KOADERNOAK

Bitácoras <http://www.bitacoras.com> Hezkuntzako direktorio bat du.

Blogger <http://www.blogger.com>

Blogia <http://blogia.com>

Edublogs <http://www.edublogs.org>

WordPress <http://wordpress.org/>

Web 2.0 zerbitzuen eta bilatzaile espezializatuen direktorioak

WEB 2.0 ZERBITZUEN ETA BILATZAILE ESPEZIALIZATUEN DIREKTORIOAK

Awards Seomoz.org Web 2.0 <http://www.seomoz.org/web2.0>

Go2web2 <http://www.go2web20.net/>

DIM <http://www.pangea.org/dim/comunita.htm>

Google blogsearch <http://blogsearch.google.com/>

Starup2 http://wiki.startup2.eu/index.php/Mapa_Web_2.0

Technorati <http://www.technorati.com/> .

Web 2.0 Directory: e-consultant <http://web2.econsultant.com/index.html>

Wwwhat's new. <http://www.whatsnew.com/recopilacion>

// BIBLIOGRAFIA

- AFTAB, Parry. "Ciberbullying, guía práctica para padres, madres y personal docente." Edex., Bilbao, 2008
- DÍAZ AGUADO, María J. "Programas de Educación para la Tolerancia y Prevención de la Violencia en los Jóvenes". Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa, Gaztediaren Institutua. Madril, 1999.
- BENITEZ, Juan Luis eta JUSTICIA, Fernando. "El maltrato entre iguales, descripción y análisis del fenómeno". Revista electrónica de investigación psicoeducativa, 9. zk. 2006
- HERNANDEZ PRADOS, María de los Ángeles. "Ciberbullying, una auténtica realidad". III. Biltzarra sarean.
- INVESLAN. "Análisis comparativo de métodos aplicados con éxito para combatir el Bullying: enfoque de formación de formadores". Proiektu-zenbakia: Es/06/B/F/PP/ 149442
- LEDERACH, Jean Paul. "El abecé de la paz y los conflictos. Educación para la paz". Los libros de la catarata. Madril, 2000.
- MAS SOLÉ, Mercedes. "Educar en la noviolencia". Pace e Dintorni. PPC. Madril, 2000.
- PÉREZ ALVAREZ, SALVADOR; BURGUERA AMEAVE, LEYRE; PAUL LARRAÑAGA, KEPA. "Menores e Internet". Thomson Reuters Aranzadi, 2013.

BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **Educar para la Vida en Sociedad en Ed. Infantil** (Rodero Garduño, Luis).
- **Educación Moral para la Convivencia y la Paz en Ed. Primaria.** (Rodero Garduño, Luis).

WEB ORRIAK

- **AVERROES** – RED TELEMÁTICA EDUCATIVA DE ANDALUCÍA
- **www.pantallasamigas.net**. **PantallasAmigas** ekimen bat da, adingabeek Internet eta teknologia berriak sarean seguru eta modu osasungarrian erabiltzeko ekimen bat.
- **www.bakelan.net** Bakeolak sortutako webgunea, bizikidetzan eta bakean heztera zuzendutako baliabideak dituen; familiei, ikastetxeei, elkarteei eta aisialdiko taldeei zuzentzen zaie.